

# GOIERRITARRA

HAMABOSTEKARIA

50. zenbakia

94ko ekainak 24

## *San Joanetan kuku San Pedrotan mutu*

*Olaberria  
eta  
Segurako  
jaiak*

# FOTOETXEA

JOSEMNRI TELLERIN  
ARGAZKILARIA

• ARGAZKI LABORATEGIAK BERTAN, BIDEOZ KONTROLATURIK  
Nafarroa Etorbidea 23, BEASAIN

## SAN JOANAK OLABERRIAN



OLABERRIKO UDALA

*Aurtengo San Joan jaiak egoki kokatuak dauzkagu asteburu luze batean.*

*Ohizko lanarekin etetzeko beharrezkoak diren ahaleginak egitera gonbidatzen zaituztet, buruari eta gorputzari ondo merezitako sosegu eta lasaitasuna emanaz.*

*Atsegina da, benetan, jendeak jaiak ondo eta harmonian pasatzen dituztela ikustea (juergak ere eginez).*

*Olaberrikoak direnei beraien jatorria ohorez eramanez nahiz eta bertan ez bizi, gogorapen berezi bat. 'Bisita gaitzazue, Ongietorriak izango zarete eta.*

**ALKATEAK**



## SEGURAKO UDALAK jai zoriontsuak opa dizkizue herritar denoi eta etorriko zareten beste guztioi ongi etorria!

*Segurako ospakizunak, txokoak eta ondare historiko artistikoa ezagutuaz!*

### Zatoz, San Joan festak gurekin ospatzera!

**EZ EGON BEGIRA !**

# Z·M

Gipuzkoako Foru Aldundia  
**MUSEO · ZUMALAKARREGI · MUSEOA**  
Ormaiztegi · Gipuzkoa  
Diputación Foral de Gipuzkoa

Casa · Iriarte Erdikoa · Etxea  
20.016 Ormaiztegi · Gipuzkoa  
Tlf.: 943 - 88 99 00  
Fax: 943 - 88 01 38

**ZATOZ ETA PARTE HAR EZAZU**

- **ARTXIBO ETA LIBURUTEGIA:** XIX mende-ko agiri, irudi, aldizkari, liburuak...
- **ARGITALPENAK:** Aldizkari, katalogo, bideoak...
- **IKERKETA BEKAK, ERAKUSKETAK,** eta abar.
- **MUSEOKO EKINTZAK:**
  - **Ikonografia lantegia:** musika, liburu eta komikiak, puzzleak eta abar.
  - **Goierriko neska-mutilentzako ariketak:**
    - \* Asteleheneran: 12-14 urte.
    - \* Asteazkenetan: 9-11 urte.
    - \* Ostiraletan: 6-8 urte.

**Etorri museora eta ikasi ezazu gure jokoan bidez!**  
**BISITA ORDUTEGIA:**  
Asteleheneratik ostiralera: 10etatik 13etara eta 15etatik 19etara.  
Larunbatetan: 10etatik 14etara eta 15'30etatik 18'30etara.  
**SARRERA DOHAINIK**



**MAIZPIDE**  
**euskaltegia**

Tfna.: (943) 88 92 31 / 32  
L A Z K A O

Goierritar horri:  
Maizpiden badituzu euskalduntze eta alfabetatze taldeak  
Uztailean, 4tik 22ra  
Abuztuaren, 1etik 26ra  
Irailaren, 5etik 30era  
Hauxe duzu aukera: deitu lehen bait lehen  
**HABEren** diru-laguntzaz

## GOIERRITARRA HAMABOSTEKARIA

49. zenbakia. 94.eko ekainak 10. Debaldeko alea. Tirada: 3.500 ale. 3.200 harpidedun.

**Argitaratzailea:** "Goierritarrak"  
Kultur Elkartea.

**Dorre-etxea, 1. (Correos-gainean).**  
**Tfna: 889612. Faxe: 161463.**

**124 posta kutxa, Ordizia.**

Zuzendaria: Loinaz Agirre.

Erredakzioa: Jon Arano, Mikel Albisu.

Publizitatea: Josune Agirre, Argider  
Mujika.

Erredakzio Batzordea: Dionisio Amun-  
darain, Jon Arano, Mikel Albisu, Jon Imanol

Iturrioz, Patxi Zubizarreta, Ane Martin, Loi-  
naz Agirre, Nekane Altuna eta Estitxu Imaz.

**Zenbaki honetako kronista eta kolabo-  
ratzaileak:** Marijoxe Madariaga, Joxe Begi-  
ristain, Ana Irastorza, Aitor Calvillo, Rufino  
Iraola, Joseba Telleria, Aloña Galarraga,  
Iñaki Amundarain, Jakoba Errekondo, Na-  
gore Goiburua, Pilare Mujika, Aitzol Arruaba-  
rena eta Alaitz Sarasola.

**Azala eta zenbait argazki:** Foto Etxe

**Fotokonposaketa eta maketazioa:**  
**GOIERRITARRA.** Inprimaketa: ANTZA,  
S.A. (Industrialdea, 1-2. Lasarte-Oria)



ISSN: 1132-0907

Lege Gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere gain  
hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazi-  
tako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



**erdiko eranskina:** *Olaberría eta Segurako jaiak*

**GOIERRITARRA** etxean jaso nahi dut  
**NIK ERE HARPIDEDUN IZAN NAHI DUT**

IZEN-DEITURAK .....

HELBIDEA .....

HERRIA..... TLF. ....

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

## NON ZER

**4. eskutitzak**

**5. agenda:** *intereseko telefonoak, gastronomia, bota ber-  
tsoa, Ordiziako azken feria, Beasain eta Ordiziako  
kultur egitarauak, debaldeko iragarkiak, egutegiak...*

**8. iritzia txandaka:** *Zerain proiektua, herri txiki baten  
etorkizuna*

**9. besteek esana, inkesta:** *Nola ikusten duzu euska-  
raren egoera?*

**10. Goierriko berri:** *Europako hauteskundeen emai-  
tzak Goierrin*

**11. erreportaia:** *San Joan bezperako gaua Goierrin*

**12. elkarrizketa:** *Sasietako Iñaki Erauskin zerbitzu-  
burua*

**14. hemen eta orain:** *Beasaingo Porteriako Auzo El-  
kartea*

**15. herriz herri:** *Mutiloa, Ormaiztegi, Ezkio-Itsaso,  
Idiazabal, Zaldibia, Beasain, Ordizia, Lazkao, eta  
Ataun*

**22. kirola:** *Bi lerrotan*

**23. goierritar bertsolariak:** *Altzo Txiki*



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak  
diruz lagundutako aldizkaria



Aldizkari honek  
Gipuzkoako Foru Aldundiaren  
laguntza jasotzen du

**GOIERRITARRAK**  
**GOIERRIKO**  
**UDALEN**  
**LAGUNTZA DU**

# Eskutitzak

## Lazkao-Gernika

Maiatzak 27an Lazkaoko Zelaian haritz bat aldatu zenuten. Ez zen haritz arrunta, baizik eta euskaldunontzat jada sinboloa den Gernikako "arbola santua"ren kuma bat. Horrelako zuhaitz batek merezi duen festa eta saltsa guztiaz eman zenioten bere etxe berri-  
ra, Zelaira, ongietorria: txistulari eta dantzariak, herriko agintariak, komunika-  
bideak, hitzaldi eta txaloak, bazka-  
ria...

Ongietorria eman nahi diot nik ere haritz horri, noski baietz!; baina aldi berean zerpentsatua, kezka sortu dit ekintzak berak: zergatik ez ziren hil-  
kanpaiak jo, orain Gernikakoa aldatu du-  
zuenok, Zelaian bertan, motozerraz 8 bat ezki eta platanondo bota zenituz-  
tenean? Bakarren bat agian bai, baina denak ez zeuden gaixo eta txistularirik gabe, dantzaririk gabe, motozerraren zarata eta indarrez bota zenituzten. Esan bezala ez zenituzten hil-kanpaiak jo, zeuok hil zenituztenez ixil-ixilik

pasatzea, ahaztea interesatzen bait zi-  
tzaizuen... Gernikako haritza, ongi etorri natura "errespetatzen" dugun he-  
rrira; baina argi!, ardura politikoa nork duenaren arabeña primeran zaindu edota ipurditik botako baitzaituzte. Horretarako ere beti aurkituko dituzte arrazoiak: "gaixo zegoen", "oker ze-  
torren", "enbarazu egiten zuen", "go-  
rria zen!"...

Maddi

## Segi gogor

Beasaingo H.B.-k orain dela hilabe-  
te batzu arte argitaratzen zuen "Gogor"  
aldizkariari izena "Beasain Eginez"-egatik aldatu zionean, bazi-  
rudien izenarekin batera edukina ere aldatu-  
ko zela. Ekaineko 3. zenbakiari gainetik begirada bat ematen badiogu, berehala ohartuko gara ez dela horrela gertatu. 12 orriez osatutako ale hone-

tan, *Ustelak* hitz ponpoxo eta elegan-  
tearekin hasten da eta *Lapurrak* izen-  
burututako artikulua batekin bukatu. Erdialdeko beste 10 orrietan ere antze-  
ko izenburuak ditugu: "*Beasaini ki-  
ratsa dario, ustelak eta lapurrak*"  
(beasaindarrok ustelak eta lapurrak al-  
gara?); "*La limpieza es un chanchullo,  
Eusko Alkartasuna entre la mierda*"  
kasu honetan gusto kaxkar batekin  
gainera); "*vaya negocio sucio*";  
"*pringados con la basura*"... etabar  
luze bat.

Beasaingo irakurleoi ez al dago ezer positiboagorik komentatzekorik? Ba-  
dirudi izenburu aldaketa imagen ope-  
razio ximple batetan gelditu zela. Beste  
gai batzu lantzeko lekurik ez badago,  
zergatik ez dituzue beste orri pare bat  
eransten? Nire eskaera kontutan edu-  
kiko duzuelakoan, segi gogor!

Xabier Eskisabel



## IRAKASLE ESKOLA

Magisterio Eskola honek zera jakinarazten du:

1994-95 ikasturterako aurreinskripzio-  
epea zabalik dagoela

Ikastetxe honek, Euskal Herriko Unibertsitateak onartu dizkion  
Especialitateetatik, honako hauek ezartzeko eskabidea egin du  
1994-1995 ikasturteari begira:

- \* Haur Hezkuntza
- \* Atzerriko Hizkuntza: Inglesa
- \* Hezkuntza Musikala

Informazioa:  
IRAKASLE ESKOLA. Tel.: 943/71 41 57  
20540 ESKORIATZA (Gipuzkoa)



Tfona: 885500 ORDIZIA



## Autowag, s.a.



Errepide Nagusia, N-1. 419 Kma.  
Tfnoak: 88 82 66 - 88 82 54

BEASAIN

# Agenda

## Intereseko

### Telefonoak

Zumarragako Eritetxea:.....721614  
 Donostiako Erresidentzia: ..453800  
 Gurutze Gorria: .....272222  
 DYA: .....464622  
 SOS Deiak: .....088  
 Eguraldi informazioa:.....094  
 Errepideen egoera:.....288888  
 Ertzantza (Beasain): .....887350  
 Suhiltzaileak (Ordizia): .....881362  
 Renfe (Beasain): .....880853  
 Sarasola Garraioak: .....880710  
 Pesa Garraioak: .....880668  
 Estellesa (Donostia): .....470115  
 Itxaropenaren tfnoa.: .....458005  
 HIES-SIDARI buruzko Inf.:282666  
 Alkoholiko Anonimoak:.....276618  
 Goierrri Lanbide Eskola: .....880062  
 GOIERRITARRA .....889612



**Garbiñe Garmendiak emana**  
**Etxe Zuri sagardotegia Olaberria**

## Errezeta

**TXOKOLATE MOUSSEA**  
**ARANekin BRANDY ERARA**  
**Osagaiak:** (6 lagunentzat)  
 Txokolate kobertura 250gr.,  
 Azukre glass 50gr., 4 arraultza,  
 Esnea 0,1l., Brandy-a,  
 Esne gaina 0,25l., Azukrea  
 40gr., Aran-pasak

Egun batetik bestera aranak brandy-arekin tapatuta jarri hezurrik gabe, gustoa har dezaten. Kobertura xehetua, azukre eta esnearekin urtu eta epeltzen utzi.

Arraultza gorringoak igo eta txokolateari nahastu brandy txorrotada batekin. Kamaran sartu ondo hoztu dadin. Arraultza zuringoak igo eta barilla batekin behetik gora mugituz txokolatearekin nahastu. Berrito denboraldi batean kamaran sartu hozteko (5 bat ordu). Bukatzeko, kopa batzuk hartu eta gure gustora apainduko ditugu: moussea, aranak, esne gaina, e. a.

## Bota bertsoa



**Igor Eguren**  
**Gaia: Esamin garaia**  
**Doinua: Zeberio I-ak darabilena**

Badator berotasuna  
 esaminaren eguna  
 ikaslea den guztiarentzat  
 urduritasuna  
 urte osoko jarduna  
 ez dadin izan iluna  
 udaberrian utzi dezagun  
 udako nahi ez duguna. (bir)

Urteko azken auzia  
 izaten da berezia  
 batzuek poza besteek pena  
 hau da tristezia  
 halako gauza na(ha)sia  
 inork ez du merezia  
 egun batzutan jokatu behar  
 urtetako lan guzia. (bir)

## TOKI-ALAI JATETXEA

**Bataio-jaunartze bazkariak, afariak,...**

Tfnoa.: 88 89 53 ARAMA

## -EZKURRA -ATEAK

Ateen ezartze eta salmenta  
 Tarima eta parketak



Tfnoa.: 16 07 50 Domingo Unanue, 2  
 Faxa: 88 09 13 ORDIZIA

## MANDUBIKO BENTA

### Jatetxea

Mandubiko gainean, Urolatik  
 Goierrirako bidean  
 Tfnoa: 88 26 73



-Agroturismo etxea: bi logela bikoitz bainuarekin.  
 -Etxeko sukaldaritza: babarrunak, baserriko oilaskoa, arkumea...  
 -Eguneroko menua 800 pzta. Karta 2.000 pzta bataz beste.

## Debaldeko iragarkiak

### Lana

□ Umeak zaintzeko, etxeko lanetarako zein garbiketarako prest 19 urteko neska bat. Tfnoa.: 886353, Kristinaz galdetu.

□ Mekanografia lanak ordenadorez egiten dira. 882843 telefonoa, Eli.

### Salerosketak

□ Goierri dut anuntzio. Euskara lagun duten enpresa, establezimendu, udal, zerbitzu eta profesionalak badute lekuri GOIERRITARRAN. Kontuak atera eta zuretzako egokiena aukera. GOIERRITARRAREN propaganda, ez garestiena, bai onena! Dei 889612ra.

□ Kanping-denda (txalet tipokoa) salgai, egoera ezin hobean, salneurri interesgarria. Interesatuok deitu 889729ra.

### Etxebizitzak

□ Pisua salgai Altamiran, sukalde jantzi berria, bergailua, sala, 3 gela, ganbara. 889728-886120ra dei eguerdi edo gauetz.

□ Pisua alokagai Lazkaon (Azeria zinema-ondoan), eguteraan, amoblatua eta egoera onean, 3 gela, sala, sukalde, e.a. Tfnoa: 881802, galde Maria Jesusengatik.

## Egutegiak

□ **BEASAIN.** Ekainak 24tik uztailaren 3ra arte: Kultur Etxeko Erakusketa Aretoan Puerto Iglesiasen pinturak. Lanegunetan 19etatik 21etara; jaiegunetan 12etatik 14etara eta 19etatik 21etara. 25: Aterpe Tabernan Luisa Aldabururen pintura erakusketaren inaugurazioa. 26: Jubilatuen Etxeko 12. urtemuga dela eta zenbait ekintza antolatuko dira. 28: San Pedro bezperan Porteria auzoan ekintzak: umeentzako jokuak, buruhaundiak, sardina eta txistorra jana eta ohizko sutea.

□ **ORDIZIA.** Bertako SUHILTZAILEEN 125. URTEURRENAREN ospakizuna. **Uztailak 9, 10,00:** Parke eta istalakuntza berrietatik ibilaldia. 10,30: Suhiltzaile borondatezko eta profesionalen arteko frogamaniobra. 12,00: Kanpainako meza parkeko istalakuntzetan. 12,45: Luntxa. 14,30: Anaitasun bazkaria Martinez Jatetxean.

□ **Yoga mintegia ekainaren 27-30etan** Kultur Etxean. 27an, hitzaldia 19,30etan; 28-30, kurtsoa, 19,30-21,30. Harremanak Barrenan: 889770 tfnoa (M.Jose/Jose M.).

□ **ZEGAMA.** Ekainak 23: Argazki lehiaketan aurkeztutako argazkien erakusketa. Sari-ematea iluntzeko 8,30. Erakusketa ekainaren 24 eta 25ean iluntzeko 7etatik

9etara egongo da irekita, igandean 12,30etatik 14etara. 26: Musika Eskolako ikasleen kurtso bukaerako kontzertua 6etan zinean. 29: 19,00etan medikuntza naturalari buruzko hitzaldia Ana Isabel Gonzalez eta Manuel Frutosen eskutik (erreflejo-terapeuta eta naturopatak). Gaia: klima eta elikaduraren eragina osasunarengan. **Uztailak 1:** Zegamako historia eta arteari buruzko hitzaldia Kultur Etxean 20,00etan; Martin Mendizabal hizlari. 2: Iruetxetatik herria etorrera, Prozesio gisara, gaueko 9etan. **Kirolak:** Herriko taldeen arteko futbol partiduak larunbat arratsaldeetan, 4etan, 5etan eta 6etan.

□ **ZALDIBIA.** **Uztailak 3, Dantzari Txiki Eguna** 11etan, talde guztiak elkartu eta hamaiketako plazan. 12etan, kalejira, amaitzean talde guztiak batera Agintarriena eta Agurra dantzatuko dute plazan. 2etan, herriko etxeetan bazkaltzeko dantzariak banatuko dira. 5etan, jaialdia: talde bakoitzak 3 dantza eskeiniko ditu. 7etan, denon artean kalejira bat dantzatzu amaiara. Beste batzuen artean Beasaingo Aurtzaka, Ordiziako Jakintza eta Zaldibiako Iztueta taldeek parte hartuko dute.

□ **IDIAZABAL.** Ekainak 30: Peruko ikusentzutekoa 8,30etan Kultur-Etxean Gemma Arrugaetaren eskutik.

### Ordizia/Beasaingo Goardiazko botikak:

Ekainak 24: Arriola; 25-26: Cuesta; 27: Urbizu; 28: Atorrasagasti; 29: Azpilikueta; 30: Jauregi. **Uztailak 1:** Larnaga; 2-3: Arriola; 4: Cuesta; 5: Arriola; 6: Urbizu; 7: Atorrasagasti; 8: Azpilikueta.

### Ordiziako Herri

**Antzokia:** Ostirala 24, "El Informe Pelicano", 10,15. **Larunbata, 25:** "El Informe Pelicano", 7,30-10,15. **Igandea, 26:** "El jovencito Einstein", 4,45; "El Informe Pelicano", 7,30-10,15. **Astelehena, 27:** "El Informe Pelicano", 7,30. **Ostirala, 1:** "Dos viejos gruñones", 10,15. **Larunbata, 2:** "Geronimo", 7,30-10,15. **Igandea, 3:** "Geronimo", 7,30-10,15; "Dos viejos gruñones", 7,30-10,15. **Astelehena, 3:** "Dos viejos gruñones", 7,30-10,15.

### Mendizaleak:

**Ordiziako Mendizaleak:** ekainak 26: Ordizia-Orio (egun osorako); **uztailak 1-2-3:** Panticosa-Pirineoak.

**Idiazabal K.E.:** **uztailak 2-3:** Aralar (gazte akanpada) (7,30etan ala 15,00etan irteera).

**Beasaingo Aitzgorri M.E.:** ekainak 26: Santimamiñeko Kobak-Laga.



## GOIERRI LANBIDE ESKOLA

I.E.E. - R.E.M.

L.H. - F.P.

\* TEKNIKO INDUSTRIAL BATXILERGOA  
\* ADMINISTRAZIO ETA GESTIO BATXILERGOA

\* ADMINISTRATIBO ETA KOMERTZIALA  
\* GALDARAGINTZA ETA SOLDAKETA  
\* ELEKTRIZITATEA-ELEKTRONIKA  
\* MEKANIKA

## Ordiziako azken azoka



Arg.: Gema M. Arrugaeta

### Bertako produktuak. No-

**bedadeak:** bertakoak: xixak (30 kilo), 4.000; onttoak (60 kilo), 3.000. **Abereak:** Arkuma, (30 buru) 600-650 pzta.-k; untxia, 210. **Gaztak:** beheiena, 750-800 p.-k.; ardigazta, 1.350-1.600; nahasia, 950-1.200; ahuntz gazta, 1.300. **BarazkiaK:** azaburua, 80-150; azelga 50-75 xorta; baratxuria 75-100 x.; borraja, espinaka, zainhoria, 50-75 x.; babarrun beltza 700-900 k.; gorria eta zuria, 400-600; baba berria, 150-200; letxua 40-80 b.; patata, 80-100 k.; porrua 85-100 x. tipulina, 60-100 k.; tomatea, 280-300. **Kanpoko produktuak: frutak:** arana, 200 k.; alberretxikua, 200-250 k.; banana, 140-

225; kiwia, 250-275 k.; brinoia, 250-375; laranja 130-200; limoia, 175-200; sagarra 140-200; udara, 175-275; marrubia, 225-250; meloia, 150-225 p.-k. **Kanpoko barazkiak:** leka, 300-350 k.; patata berrria 75 k.; piper-gorria 250; berdea 150-175; tomatea 175-225; tipulina, 125 x.; **Arrainak:** amorraina, 600; antxoa 700; antxoil 1.020; bakailaua, 1.100; itsasoilarra, 1.080; izokina 1.300; kariokita 790; legatza, 1.690; mediana 1.250; peskadila, 1.130; mihiarraina, 1.680; sardina 480; muxarra, 950; pota, 580; txitxarroa 710; txipiroia, 1.080.

Ana Irastorza

## Deialdiak

□ZIENTZI zabalkunde-rako sariak 94 antolatu dituzte "Elhuyar" aldizkariak eta CAFek elkarrekin. Sari hauetara argitaragabeko eta euskaraz idatzitako zientzia eta teknologiararen dibulgaziorako edozein lan aurkez daiteke. A mailan, lanek gutxienez 3 DIN A4 eta gehienez 6 izango dituzte eta B mailan gutxienez 75 DIN A4. Lanak azaroa baino lehen bidaliko dira Elhuyar Kultur Elkartera, Asteasuain 14, 20179 Usurbil.

□BEASAINGO Udaleko Euskara Batzordeak jakinarazten du, urriaren 31ko epeaz aurretik, 93-94 ikasturtean euskara ikasten ibili direnek subentzioak eskatu dezaketela. Laguntzak edozein ikastaro motagatik emango dira. Baldintzak: Beasainen erroldatuta egotea eta ikastaroa amaitu izana %80eko asistentziarekin. NANaren, matrikula-ordainagiriaren, asistentzia frogaren eta langabetutxartelaren (hala egon ezker) fotokopiak aurkeztu behar dira. Baita ktu.kte.-aren zenbakia.

□X ORTZADAR Argazki Saria antolatu du Ordiziako izen bereko Argazki Elkarteak. Euskal Herri guztiko profesional ez diren zale guztiek parte har dezakete. Saritu gabeko 5 argazki aurkez ahal ditza ke egile bakoitzak. 30x40 zm.ko kartulina fin batekin errefortzatuak bidaliko dira lanak uztailak 7a baino lehen, Ortzadar A.E.-ra, 79 p.k. Ordizia. Sariak: 1.a: 20.000 pzta., 2.a 15.000 eta 3.a 10.000, gehi garaikurrak. Beste zenbait akzesit eta sari ere izango dira.

□8. AGOSTINHO Memoriala, Ordiziako Gaztetxeak antolatutako "karrera" herrikoia izango da hilak 25 larunbata, 16.00etan. Ibilbidea: Gaztetxea-Larraitz-Alegiko Gaztetxea (1. sektorea); Legorreta-Gaztetxea (2. sektorea). Txirrindulari Proba hau hurrengo hiru lelo hauen pean eratzen da:

\* Disfrazatu gabe etorri liteke.

\* Bizikleta egunero eta denontzat.

\* Lehia eta autoak baztertuz.

**inlingua**  
hizkuntzak

J.M. Iturrioz, 11-1. ☎ 16 05 72  
BEASAIN

**UDAKO INGELES IKASTARO TRINKOA. UZTAILEAN eta IRAILEAN.**

Ordutegia: bi ordu egunero, astelehenetik ostiralera.  
9etatik 11etara edo 11etatik 13etara, goizez  
15etatik 17etara edo 19etatik 21etara, arratsaldez  
Uztailan 4etik 28ra, Irailan 5etik 29ra.

*Ikastaro bakoitzean ikasleak egin duen ikastaroaren eta mailaren DIPLOMA jasoko du.*

Elkano k., 8-1. ☎ 88 11 37  
ORDIZIA

Iparragirre, 8-1. ☎ 72 22 23  
ZUMARRAGA



Jakoba Errekondo

Zerain, Gipuzkoako hegoaldeko Aizkorri mendizerraren iparraldean kokaturik dago, 10,48 km.ko hedadura eta azken errodaren arauera 227 biztanle dituela. Mende honen hasiera arte, meategien inguruko industria garrantzitsu bat izan du (I. ustirakuntza-baimen dokumentatua 1.512 urteko errege katolikoek sinatua) eta betidanik abeltzantza eta nekazaritzari erabat lotutako herria izan da. Nekazaritzari lotuta bizi izan diren beste herri gehienak bezala, biztanlegoaren izugarritzko gain-beherakada jasaten hari da.

Komunitatearen iraupena kinka larrian zela eta, duela urte batzuk bertako Udala eta herritarren artean zerbait egin behar zenaren grina bizia piztu zen. Honen ondorio zuzena egun gauzatzen hasi besterik egin ez den **Zerain Proiektua** da. Proiektu honek helburu bakar bat du: **biztanle kopuruari eutsi eta ahal bada handitu**. Helburu hau lortzeko, egiten den guztiak 3 bide hauek jorratzen ditu: \* Herrian komunitatearen zentzu soziala indartu; \* Herritarren bizitza-kalitatea hobetu. \* Etorkizun ekonomikoa bermatu.

Honela, 80. hamarkadan, oinarrizko bi instituzio sortu edo berreskuratzen dira herrian: Herri Eskola eta Kultur Etxea. Herritar kontzientzia areagotu eta auzolanaren sendotzea eta bide berriak urratzea (liburutegia, ondare etnografikoaren katalogazioa, aldizkaria, e.a.) urrats erabakiorrak izan dira. Bestalde, biztanlegoaren bizitza-kalitatea hobetzen oinarriko beharrak osatu ziren (elektifikazioa, bideak, etxe berriak eraiki, gizarte laguntza, zabor-bilketa, estalitako frontoia, e.a.). Egundak, etorkizun ekonomikoa bermatuko duten bideak jorratzeari ekin zaio, batik bat. Bi arlo lantzen ari dira: \* Kultura eta

## Zerain Proiektua

turismoari lotutakoa. \* Nekazaritza eta abeltzantzen garapena eta bide berriak.

Herriarren ekonomia hobetzea, biztanlegoari eutsi eta handitzea, bizitza kalitatea hobetu eta herritar kontzientzia osatzea, **beti elkarrekin doaz**. Bestalde, herri osoaren partehartze zuzena eta erabakiorra gabe, proiektu hau gauzatzea erabat ezinezkoa litzateke. Beraz, gaur egun, Proiektua zuzen-zuzenean bideratuko duen Herri Batzorde zabala eratzen ari da. Bertan herritar guztiak, soilik nekazaritzatik bizi diren baserriarrak, baserriar mixtoak, Kultur Etxea, herriko zerbitzu-enpresak, Kirol Elkarteak, Udala, etab. ordezkatuta egongo dira.

Zerain Proiektuaren hiru ardatz nagusiak:

### Kultura Turismoa

Zerainek kultur-ondare oso zabala du eta bere berezitasunak direla eta errestauratze eta berreskuratze lanari ekin zitzaion. Honela, gaur egun Zeraingo herriak, kanpotik datorrenari erakutsi eta eskeintzeko kultur eta eraikuntza ondare handia du aukeran. Ondare hau, Zeraingo herriaren izaera kulturala, soziala eta ekonomikoaren aparteko berezitasunaren lekuko adierazgarria da. Ondare arkeologikoan Irumugarrieta II eta Arranoaitza-iparrako zistak, Oamendiko dolmena, Txoritegiko tumulua, etab. Historikoan hilarriak, eliza eta bertako Kristo erromanikoa, baseliza, erretgaltzara, XVIII mendeko kartzela, etab. Eta bestelakoan Kultur Etxea, Larraondo zerrategia,

Ostatu etxea, Herri Museoa, bolatokia, Jauregi etxea, Benefiziadunea, baserriak, karobiak etab. Hauek ustiratu eta herriarentzat egokiak diren ondorioak sortzea posible dela argi dago.

### Natura Turismoa

Kulturazkoaz gain, Zerainek natura-ondare aparta du. Baserriko bizitzak nahi eta nahiezkoa izan du, oraintsu arte, naturarekiko elkarlana eta errespetoa. Honela, ikusgarria da Zeraingo Udal-barrutian aurkitu daitekeen landaredi, baso eta orokorrean paisaia aukera. Inguruaren ustirakuntza sistema berak ikusgarri eta erakargarri gertatzen direnez (ikuiluak, artzantza, baserria, eta.), egun turismo hau ere Zerainera badator.

### Baserria

Merkatuaren egungo joerei jarraituz, baserrietako ustirapena aldatu eta egokitu beharrean dago, etekin-bideak aniztu, kalitatea zaindu eta komertzializazioa jorratuz. Hala, inguruneko baldintzetara egokitzen diren produkzioak (indaba, errezil sagarra, nekazaritza biologikoa, oilaskoa, intxaurra, etab.), baserri baserri planteatu eta planifikatzeari ekin zaio. Bestalde, behar-beharrezkoa da komertzializazioaren arazoari heldu eta irtenbide oparagoak lantzea.

Egungo egoeraren laburpena: \*Herrian, Proiektua gidatuko duen egitura eratzea. \*Ondare kultural eta naturalaren berreskuratzea. \*Bertako energia endogenoak proiektuaren alde bideratzea (ikastaroak, kultur ekintzak, etab.). \*Dagoeneko berreskuratutako ondarea eta natura-ustirakuntza sistemen ustirakuntza turistikoa eta pedagogikoa. \*Informazio eta harrealekua prestatu. \*Nekazal turismoa sustatu (baserri bat prestatzen ari da). \*Nekazal produktuen komertzializazioa.

**Herriaren ekonomia hobetzea, biztanlegoari eutsi eta handitzea, bizitza kalitatea hobetu eta herritar kontzientzia osatzea, beti elkarrekin doaz.**



## Besteek esana

"Aintzinetik San Juan Suak gorde izan ohi du bere zentzu majikoa. Orduan bezalaxe gaur ere suaren inguruan bildu gara oraindik bizirik gaudela adierazteko. Gure musikarekin, dantzekin eta sorginekin partehartzea, elkartasuna eta askatasuna oihukatu nahi dugu". Horrela hasten gara urtero, eta aurten ere. Denek dakizuten bezala aurten ez dugu subentziorik jasoko, udaletxean ditugun inkisidore berriek diotenez politika egiten dugulako. Urte hauetan zehar (eta aurtengoan ere) gure gizarte "aurrerakoi" honetaz jabetzen ari den insolidaritate eta indibidualismoak kezkatu egiten gaituela azaldu nahi dugu. Adibide zehatz batzukin salatzen dugu, festa hau espektakulu soil bat baino gehiago da, suaren inguruan biltzen garenon kontzientzia astindu nahi dugu, gure betiko ohitura eta eguneroko errealtate gordinaren artean lotura bat bilatuz. Desarrolismoa (Expo'92, Joku Olimpikoak...), ejerzitoak, drogomenpekotasunak, arrazakeria..., sinbolikoki "erre" egin ditugu, eta inkisidore jaunek arrazoia dute, bai, hau politika egitea da. Horixe baietz.(...)"

**Ordiziako "Su Gorria"-ren komunikatua**

## Inkesta

### Nola ikusten duzu euskararen egoera?



**Jose Luis Gonzalez**  
ordiziarra  
37 urte, merkataria

Oraindik galduta ez dagoen borroka bat bezala. Orain 100 urte desagertzeko zorian egon bazen ere, berriandartzen ari da eta uste dut denok jar dezakegula geure harrixoa bide honetan. Gazteen aldetik joera hobea dago. "Lan" asko egin behar da gure adineko jende-artean. Lan atsegina da ordea.



**Juanita Amundarain**  
itsasondoarra  
47 urte, irakaslea

Jakin, askok dakite, baina gutxi hitz egiten da kalean. Denon artean ez badugu euskaraz egiteko joera hori hartzen, nik uste dut jai daukagula. Baina itxaropen bat ere bada: hasiko garela piska bat aurreratzen eta hobetuko dugula. Larriena da dakigunok ez dugula erabiltzen.



**Faustino Garmendia**  
ordiziarra  
29 urte, udaltzaina

Aurrerapausu batzuk ematen ari garela iruditzen zait, baina nahiko geldi. Eguneroko lanean, aurreneko hitza euskaraz nik esan behar dut, bestela erdaraz hasten zait jendea, baita euskara besterik ez dakiten baserritarrak ere. Lehen udaltzainak kanpotarrak izaten ziren eta horregatik izango da beharbada.

## KUKO

### Jatetxea

- Haragietan aukera handia
- Okeletan mundu oso bat

Igandeetan jai, erreserbak salbu  
(bataio, jaunartze, e. a.)

Berjaldegi Plaza, z/g ☎ 88 28 93  
ORMAIZTEGI

## ZUHAIZKI

Zurgindegi Mekanikoa



-LEIHOAK, ATEAK  
ETA ABAR



-ESKAILERAK  
NEURRITARA

Beko kale, z/g.  
Tel. 88 71 26  
Faxa: 16 10 77  
ITSASONDO  
(Gipuzkoa)

## UROLA

### bidaiak

Kale Nagusia, 36 ☎ 161546 BEASAIN

*Bidaiatzeko formula gaztea*

Andaluzia (8 egun) .....	25.900
Paris, Eurodisney, Versailles, Futuroscope (6 egun) .....	29.900
Maroko (10 egun) .....	38.500
Estatu Batuak (10 egun) .....	119.900
Thailandia (14 egun) .....	180.900
India - Nepal (19 egun) .....	214.900

#unijoven

## Ba al dakizu...?

**□** Goierriin ditugun ia 100 intsumisoetatik, gaur arte 13 "bakarrik" izan dira epaituak eta horietatik 2, Juankar Albitos beasainarra eta Joseba Mintegi ordiziarra, giltzapean daude. Gai-nontzekoen artean batzuk 3 edo 4 hilabeteko behin behineko zigorrak jaso eta fiskalak errekurritu ondoren sententzia definitiboaren zai daude. Azken egunetan epaitzekoak ziren Jorge Garcia, "Gartzi" ordiziarra eta Goren Irizar eta Xabier NARBATE (bertsolaria) lazkaotarrak. Bakarrik Gipuzkoan 170etik gora gazte epaituak izan dira soldaduskari edo Ordezko Zerbitzu Sozialari uko eginez beren idea antimilitaristak defenditzeagatik.

**□** Sasieta Mankomunitatea osatzen duten Goierriko 22 udalerrietako ikastetxe guztietan programaketa berezi bat burutu berri da ikasturte honetan zehar Andoaingo Artelatz Ingurugiro Heziketa taldearen eskutik, ondorengo lanak egin direlarik, besteak beste: Unitate didaktikoen prestaketa eta eskeintza: OHO, BBB, UBI, LH, IEE eta HHleko maila desberdinei zuzenduriko heziketa materiala; "Bilketa bereiztua eta berziklaketa" gaia oinarritzat harturik OHoko 6., 7. eta 8. mailakoei zuzenduriko tailerrak eta za-

bortegira bisitaldiak. Ikastetxeek gaien sakontzen jarraitu dute, batzutan material desberdinak sortuz. Lan horiek herritar guztien ezagupenean jartzea oso garrantzitsua ikusten zenez, eta sorturiko lanak ugariak zirenez, Goierriko ikastetxeetako ikasleek eginiko lan interesgarriak bi erakusketetan erakutsi berri dira ekainak 14etik 18ra Ordizia eta Beasainen. Egin duten esfortzuak eta lanen kalitateak merezi zuen.

**□** J.M. Aristrain Korporazioak %22ko fakturazio hazkundea izan zuen iazko ekitaldian altzairuen salmentagatik 65.000 miloi pezeta ingressatu ondoren. Fakturazioa guztira 103.00 miloieta heldu zen, 92an baino 14.364 miloi gehiago. Korporazioko lantegiek 1.529.000 miloi tona altzairu ekoiztu zituzten azken ekitaldian.

**□** Aurtengo ikasturtean egin du Hezkuntza Sailak Lekualdatze Lehiaketaren deialdia Eskola Publikoko OHoko irakasleentzat, lehenengo aldiz 5-6 urte ondoren. Polemika sortu da. Amaia Salegi irakasle itsasondoraren esanetan, "probisional bezala aritu garenontzat emaitzak benetan txarrak izan dira: 150 irakasle ginen hasera batean Gipuzkoan derrigorrez

izendatuak guk aukeratu gabeko Araba eta Bizkaiko plazetara. Honen ondorioz, badirudi guk utzitako hutsuneak betetzeko Bizkaia aldetik zenbait irakasle ekarri beharko zirela, oso ondorio larriekin guztiontzat: gure etxe eta sendiarengandik urrundu, aste gutzia kanpoan pasatzea behartuz eta bestetik Euskal Eskola Publikoaren kalitatea ere ez da inolaz ere ziurtatzen irakaslegoaren mobilitate handi honekin". Sindikatuarekin eginiko bileren ondoren, badirudi 120 gipuzkoar izan direla kanpora izendatuak; kanporatzeak ez baino besteetatik Gipuzkoaratzeak prolema teknikoak lekarzkio Hezkuntzari eta badirudi arazoa konpondu nahi dutela datorren kurtsorako: nahiz eta plaza kanpoan euki, 90 irakasle lurraldean geratu litezkeela proposatzen zaie, baina kolektiboak hori "partxea" dela eta izendatze-sistema aldatzea aldarrikatzen du.

**□** ORDIZIA. Gazte Asanbladaren azken komunikatua iritsi zaigu: "Iruñeako gazteek aspaldian abandonaturiko lokalak hilabetean txukundu eta gero, agintari eta poliziek egun bat bakarrik nahikoa izan dute ilusio eta lan guztiak zapuzteko. Errepresioa, biolentzia da beraien erantzun bakarra.

**UDAL BEASAIN EUSKALTEGIA**  
LOINAZKO S. MARTIN PLAZA  
KULTUR ETXEA, 1.a  
Tel. 889094

**EUSKARA**

5 ordutako ikastaro trinkoa  
Uztailaren 1etik 29rarte aste-  
lehenetik ostiralera goizez

Matrikula: 5.000 pzta.  
Matrikula epea: ekainak 13tik 24ra

**OSASUN**  
BELAR ETA DIETETIKA DENDA  
NATUROPATA  
*Eska ezazu eguna eta ordua*  
Goierri, 10 • Tfnoak: 88 61 14 • ORDIZIA

TAPIZ ETA GAINZTADURA  
TAILERRA  
**B i O K , c . B .**  
Zorueta moketak, parketak, zintasola, e.a.  
Ezkiaga Etorbidea. z/g.  
Tfnoak: 88 80 22 - 88 79 17  
BEASAIN

*Lirain*  
Lurrindegia eta Opari Gaiak  
San Inazio, 14 ☎ 88 93 90 BEASAIN

**Carasa, Cilveti,  
Lacort y Cia., S.A.**  
Aseguruen Korreduria  
Martin Alustiza  
Ekaitz Bulegoak ☎ 88 69 53  
Domingo Unanue, 3 ORDIZIA

Egun batean lortuko dugu! Gure elkartasun beroena Iruñeakoei. Herri bat, Gaztetxe bat!"

**SEGURA.** Iazko irabazleek, Amaia Agirre eta Eduardo Murua-mendiarazek, irabazi zuten Euskal Herriko Dantza Askatuko azken txapelketa (18. edizioa). Karmentxu Etxeberria herriko alkateak adierazi berri duenez, Guillermo Areizagari zor zaio maila horretako txapelketa hau Seguran jokatzea. "Gaur mugitzen hasiko bagina, arazo larriak izango genituzke gisa honetako txapelketa bat herrira ekartzeko, baina orain dela 18 urte Guillermo ate hasi zen eta lortu egin zuen. Segurak ez zuen eta ez du dantza talde profesionalik. Orain 80 urte bai eta baita orain 200 urte; azken 20 urteotan ez, baina oso herri dantzazalea izan da. 76.ean dantzari txiki taldea sortu genuen, Guillermo tartean zen eta neu ere bai". Beraiek uste ez bezalako arrakasta izan du E.H.ko Dantza Txapelketa honek.



**LAZKAO.** "Elizen Arteko Biblia", lehenbiziko Biblia osoa euskara batuan aurkeztu berria da. Katoliko eta protestanteen artean itzuli eta eman da argitara. Lan handi horren gehiena Lazkaoko Beneditarretan egin da eta argazkian ikus

daitezkeen Dionisio Amundarain eta Enrike Zabalak parte handia izan dute, Agustin Apaolaza eta Iñaki Mendigurenek bezala, besteak beste.

**BEASAIN.** Kulturarekin zerikusia duten bi berri. Bata, Jose Luis Elias Jauregi margolari mexikarraren hormirudi bat ipini da CAF faktoriko klinikaren sarreran. Muralak handia izan behar du, goierri-tar eta euskal sinboloez gain mexikarrak ere badira bertan. Bi herrialdeon arteko harremanak ez dira merkataritzakoak bakarrik beraz. Biga, bihar-etziko Usurbe zinema berriaren eskenategiaren teilatua altxatu behar izan da. Tramoiak eutsiko dituen bilbapen edo entramtua bertatik sartu beharrak eragin du hori. Dirudienez, eraikitzaileak ez du erantzunkizunik horretan. Bestalde, teilatua berak 6 miloiko kostua du.

## Europako hauteskundearen emaitzak Goierriin

Udalerrria	Zentsoa	Abst.	HB %	EAJ %	EA %	PSOE %	PP %	IU %	Beste. %
ALTZAGA	79	%43,04	21 46,6	12 26,6	12 26,6	0 0	0 0	0 0	0 0
ARAMA	132	%37,88	34 41,4	23 28	17 20,7	1 1,2	4 4,8	0 0	0 0
ATAUN	1.417	%37,4	436 49,1	195 21,9	205 23,1	5 0,5	3 0,3	4 0,4	43 4,8
BEASAIN	9.861	%47,21	1.145 21,9	1.321 25,3	781 15	915 17,5	402 7,72	384 7,3	235 4,9
EZKIO-ITSASO	438	%46,12	129 54,6	51 21,6	43 18,2	3 1,2	2 0,8	1 0,4	5 2,9
GABIRIA	363	%40,22	43 19,8	33 15,2	130 59,9	0 0	5 2,3	0 0	6 2,7
GAINTZA	109	%55,05	18 36,7	8 16,3	16 32,6	1 2	2 4	2 4	2 4
IDIAZABAL	1.615	%43,10	227 24,7	256 27,8	301 32,7	24 2,6	49 5,3	19 2	43 4,6
ITSASONDO	530	%43,96	139 46,8	75 25,2	38 12,7	7 2,3	10 3,3	12 4	13 5,3
LAZKAO	3.935	%43,25	688 30,8	568 25,4	240 10,7	289 12,9	147 6,5	153 6,8	91 4
LEGORRETA	1.193	%41,07	188 26,7	236 33,5	63 8,9	85 12	60 8,5	30 4,2	35 5,8
MUTILOA	149	%60,40	25 42,3	13 22	14 23,7	0 0	5 8,4	1 1,6	1 1,6
OLABERRIA	948	%51,05	97 20,9	94 20,2	55 11,8	87 18,7	68 14,6	40 8,6	23 4,9
ORDIZIA	7.522	%44,63	1.156 27,7	851 20,4	541 12,9	597 14,3	452 10,8	399 9,5	146 3,5
ORMAIZTEGI	947	%36,33	162 26,8	224 37,1	132 21,8	15 2,4	11 1,8	13 2,1	76 12,6
SEGURA	1.014	%31,76	225 32,5	152 21,9	270 39	8 1,1	6 0,8	12 1,7	19 2,7
ZALDIBIA	1.274	%39,40	460 59,5	83 10,7	85 11	36 4,6	37 4,7	29 3,7	42 5,1
ZEGAMA	1.151	%41,53	243 36,1	87 12,9	271 40,2	9 1,3	29 4,3	12 1,7	22 3,2
ZERAIN	186	%42,47	39 36,4	39 36,4	27 25,2	0 0	0 0	0 0	0 0
GUZTIRA	32.863	%44,23	5.475 29,8	4.321 23,5	3.241 17,6	2.082 11,3	1.292 7	1.112 6	802 4,3

## San Joan bezperako gaua Goierrin

Gau laburrena, itzal luzeena duena. Orain dela urte gutxi arte, gaurko gauetz mendi edo muino alturen batetara igo ezkerro suteak ikus zitezkeen Goierri osoan. Sinismen eta ohitura ugari galdu da, baina badirudi suteak oraindik bizirik dirautela.

San Joan Jaiekin batera udako solstizioa datorrigu. Iazkoan Zaldibiko apaiz eta antropologoa den Emeterio Sorazuk eman zigun gau magiko horren inguruko sustrai eta usadioen berri (ikus GOIERRI-TARRA 35. zenb.). Aurtengoan, Goierriko herri batzuetan San Juan suaren inguruan ospatzen diren zenbait ekin-tza agertuko ditugu. Artikulu honen osagarri Segurako Jaiean atarikoak irakur dezakezu, gainera.

**Olaberriko Ana Telleriak** esaten digunez, "Duela urte batzu arte, San Joan su hau etxe atari bakoitzean egiten zen, soroetako izpiritu txarrak aldenarazi eta uzta on bat izateko. Orain, nahiz eta etxe batzutan ohitura honek jarraipena baduen, herrian su handi bat pizten da eta horren inguruan dantzatzen dute 'sorginak'".

San Joan zuhaitzaren igoketari dagokionez, "Zuhaitzak makala behar du izan eta ohituraz zuhaitza lapurtua izan behar da; bere jabeak ezin du erreklamatu, gainera. San Joan Txiki egunean (San Joan lepamoztuaren egunean) kentzen da. Lore-bedeinkazioa



Arg.: Fotoetxe

San Joan Bezperan egiten da. Ohitura hau leku gutxitan mantentzen da. Etxeko loreekin sorta bat egin eta bedein-katu ondoren San Joan egunean lizarrekin batera baserriko sarrerako atean jartzen da, etxeko izpiritu txarrak aldenarazteko.

**Zaldibikoaren berri Rufino Iraolak** damaigu. Lehen baserri guztietakoek egiten zuten sua San Joan eta San Pedro bezperetan. Zaldibiakoaren berezitasuna su horiei "Alamartxo" deitzea da. "77.az geroz, ikurriña legalizatu eta udaletxean jartzen hasi zenez geroztik alegia, herriko plazan sua eta herri afaria egiten dira. Udaletxeak ardoa, trikitilariak eta bertsolariak jartzen ditu, norberak bere janaria eramaten duela".

"Orain dela lau urte hasi ginen San Joan gaua dantza eta kantuz hornitzen eta, oraindik etsi ez dugunez, aurten ere Gazte Asanbladak izango du zere-

gina, beste soinujole, txistulari eta txalaparta-joleen antzera", informatzen gaitu **Idiazabalgo Aloña Galarra-gak**. Beste urteetan bezala, aurten ere dantza eta ospakizunak hasi aurretik denek izango dute afari bikain bat dastatu eta ondorenean ekitaldia gozatzeko aukera. Ipuin bat irakurtzen da urtero eta "sorgin eta dantzariek ere betiko moduan egingo dute beren antzerkia. Sua itzaltzen dihoanean, seguru gehienok Seguran emango diogula agurra gauari".

**Ormaiztegin**, San Joan egunez herri barruan 3 edo 4 su egiten ziren garaiak ez dira hain aspaldikoak, diosku **Iñaki Amundarainek**. "Aurtengoan, ordea, herriko umeak udaletxera ondoko galdera honekin hurbildu dira: non has daitezke San Juan sua egiten? Izan ere, Estanko parean belar handia dago, zubi azpian egiterik ez dago, eta Eroski atzean ere ez da komeni garajeetako materialen batzuri kalte egin diezaie-keelako. Askotan konturatzen ez bagara ere, gure herria ari da poliki-poliki bere itxura aldatzen".

Goierriko gainontzeko herriak ere, nola ez, ari dira itxuraldatzen. Hala ere, gaurko suak badu indarrik herritar guztiak bere inguruan biltzea lortzeko oraindik.

J. M. A.

**belén**

Jostailuak  
Lorak  
Opariak  
Margotutako paperak

Urdaneta, 24 ☎ 88 52 65 ORDIZIA



Gero jator eta atsegina

**BASAKANA**

ITURRIOZ 11  
BEASAIN

**IBAI - ONDO**



**ZURGINTZA  
HALTZARIAK  
P.V.C.ko LEIHOAK**

Tailer eta erakusketa:  
Antzizar Auzoa, z/g.  
Tfona: 880543 BEASAIN

## Segurako ohitura berezi eta xelebreak

Gipuzkoan bertan eta auzuneak kontatu gabe, hamar herritik gora izango dira udako solstizioaren inguruan beren festak ospatzen dituztenak.

Uda atarian datorkigun festa honek Seguran ere izan ditu eta baditu ohitura bereziak eta xelebreak. Erdi galdu badira ere herriko zenbait jenderen oroimenean oraindik aurki daiteke zenbait gauza jakingarri, ohiturak, kantarik eta esaldiak falta ez direlarik. Hona hemen batzuk:

☞ Herriko zaharrenek entzuna duteenez, urtean zehar axio txarren bat egin zuena, gaitzetsia zen San Joan aurruskuan. Dantzarien zubipetik pasatzeko eskubidea ukatu egiten zitzaion lagunartetik kanpo utziz.

☞ Baina batez ere "atsoak" eta sorgin ustekoak izaten omen ziren erasotuenak. Garai batean San Joan bezperan elorriak jarriz atez ate joaten ziren gazteek, ez omen zuten horrelakorik jartzen "atsoak" bizi ziren etxeetan. "Atsoak" berriz, erasoei aurre egin nahian edo, elkartu ere egiten omen ziren. Urtez urte eta ahoz aho gaur eguneraino heldu diren bertsoak gogoratzen dituenik ere bada oraindik:

San Joan bezpera gauean  
Atsoak asarre zirean  
Ez zuten besterik egiten  
Alkarri muturrak autsitzen

San Joan dabil soroetan  
Arto eta garietan  
Arto eta gariak kutxan gorde  
Atso eta sorginak labean erre

Jauzi denok atsoen bila  
Herri hontan badira mila  
Egin dezagun denekin pila  
Eta higuin dezagun hazi hila

☞ Garai batean, herritarren arteko ardo-partiketa ere San Joanetan egiten zen. San Joan suaren gainetik salto egindako herritar zaharrenari pitxar ardo berezia ematen omen zion udaltxeak.

☞ San Joan arbolari dagokionez, duela berrogei bat urterarte bi izaten ziren, bat ofiziala, herriko plazan (orain eliza ondoan) jasotzen zena eta bestea kukaina bezala jolaslekutzak jartzen zutena. Azken hau, gazteek



mendian lapurtua eta bizkar gainean herrira ekarria izaten zen. Iaz Elorri kultur elkarteko talde batek berpiztu zuen bigarren arbola jartzearena.

☞ San Joan egunean, etxe-atariak apaintzeko usadioa ere ez da galdu. Gaitzen eta begikoaren kontrako babesgarri bezala, etxe-atarietan elorri-zuri gurutzeak jarri ohi dira eta gero eta gutxiago ikusten badira ere, soro-zelaietan lizar gurutzeak.

*Joseba Telleria*

**ELORRIPE**  
edaritegia

☎ 801002

SEGURA

Giro  
atsegina  
eta  
pintxo  
bereziak

**Autonine**

Zurbano Kalea, 10  
20214 SEGURA (Gip.) ☎ 80 04 16

**JUAN MIGEL LARREA**  
**ETXE TRESNAK**

Unzurruzaga, 5  
SEGURA

☎ 801174

**EROSLE**  
**GOIKO**

Zurbano, 8  
SEGURA

☎ 800326

**GAIARA, S. L.**  
**Autobusak**

Mota guztietako bidaiak:  
nazional nahiz nazioartekoak  
Eskatu aurrekontuak

☎ 80 14 39  
ZEGAMA

☎ 88 59 69  
BEASAIN

# Segurako San Joan Jaiak 94

## Ekainak 24, ostirala, San Joan eguna

**8,45:** Gipuzkoako Itzuliko Txirrindulari Gazte Taldeen aurkezpena, Plaza Nagusian. **9,30:** "Segurako Alborada" Kri-seilu taldearekin. **10:** Gipuzkoako Itzuliko txirrindulari gazteen 2. etaparen irteera. **10,15:** Ohitura zaharrari jarraituz, alkate eta zinegotziak udaletxetik elizara joango dira "Alkate soinua" ren doinuan. **10,30:** Meza Nagusia. **Ondoren:** ohizko hamaiketako udaletxean. **12,30:** San Joan Egoitzeko adineko lagunei Udalaren bixita, festa-oparia emanaz. **13:** Herri Kirolak (Olaberri Seguraren aurka) eta bertsolariak (Egaña eta Lizaso). Eguerdia alaitzeko, herriko trikitilari gaztetxoak Jaionerekin. **18,30:** Pilota partiduak Baratzte Pilotalekuan. Promesen arteko partidua: Berasategi-Ibarreta/Berraondo-Larrañaga. Profesionalen artekoa: Tolosa III- Armendariz/ Ariznabarreta-Santi. **19,30:** Oria Txaranga Plaza Nagusian. **Partidu-ondoren:** Buruhaundi eta erraldoiak txistulariekin. **23:** Izadi Dantza Taldearen ekitaldia plazan. **Ondoren:** Dantzaldia goizalderarte.

**Oharra:** 11etatik 14etara eta 17etatik 20etara, tren berezia aterako da frontoi ondoko plazatik Segura eta inguruetakoa ibilaldia egiteko.

## Ekainak 25, larunbata, San Joan Bigarrena



(umeen eta koadrilen eguna, mozo-roak) **9,30:** Arrantza txapelketa umeentzat Oria ibaian (92tan izenematea plazan 16 urtetik beherakoentzat). **10:** Kriseilu Taldea kaleetan zehar. **10,30:** Marrazki txapelketa eta sariak. **11,30:** Plater hausketan Karobietan. Koadrilen jokuak plazan. **12:** Toka Txapelketa herriko eta herritarrentzat, emakumeentzat txapelketa berezia. **13:** San Joan Bigarreneko kalejira. **14,30:** Herri bazkaria, Pelotaleku zaharrean. **18,30:** Pelota partiduak Baratzte Pelotalekuan. Herri-arte txapelketaren Finaleko errebantxa: Segura-Amezketan. **20:** Mozorro-disfrazak: ume, gazte eta helduentzat; kalejira Oria Txarangarekin. Ondoren luntxa Plazan mozorrotuentzat. **23tik goizaldera:** Jokaldi Taldearekin dantzaldia.

## Ekainak 26, igandea

**9,30:** 37. San Joan Txirrindulari proba, 1. eta 2. mailako afizionatuentzat. **10etatik 12etara eta 18etatik 19etara:** Bola eta Toka probintziala. **10,30:** Kriseilu Taldea herria alaitzen. **11etatik 13,30etara:** Eskulangintzako erakusketa. **12:** Jubilatuentzat jokuak eta "mokadutxo". **12etatik 14etara eta 17tatik 20etara:** Ume guztientzat Baratzte-aurreko plazan "pista libre". Eguerdia arratsalde osoan: Oria Txaranga Herriko Plazan. **19:** Buruhaundi eta erraldoiak. **19,30:** Poteo elegantea. **23etatik goizaldera:** Drindots taldearekin dantzaldia, eta Kalejira festei amaiera emateko.

**Oharra:** Festa egun guzietan Kultur etxean herriko emakumeek urtean zehar eginiko eskulanean erakusketa egongo da.



## ANAIK GARAJEA

### MEKANIKA ETA IBILGAILU-KONPONKETA

Guardiko Industri-Poligonoa  
Tfnoa: 80 11 32

IDIAZABAL  
(Gipuzkoa)



HERRI MUSEOA

BISITA ORDUAK

Larunbata: 11etatik, 14etara  
16etatik, 18etara

Igandea: 11etatik, 14etara  
Lanegunetan: 10,30etatik,  
14,30etara, aurretik deituz.

☎ 80 17 24

## OGEI S. A. L.

### Eraikuntza metalikoak

Ormigoneren fabrikazioa  
Ormigonatu hornitegiak  
Fatxadetako jasogailuak

lurre auzoa, z/g ☎ 88 52 50 - 4  
OLABERRIA 12p.k. BEASAIN

# Aintzinako Zeba Jaietan dago

Gaur egun Goierrri aldean eta E.H. osoan Olaberria izenez ezagutzen dugu gure herria. Baina Olaberria ez da izan herri txiki honen izen bakarra. Orain dela urte mordoxka bat **Zeba** deitzen zioten; egun Olaberria izena duen herriko zelaietan zebiltzen artzaiek jarri omen zioten izen hau.

Zeba hitzak bi jatorri izan ditzazke. Batzuk zioten "Sel" erroitik datorrela hitza: ardia, ganadua jasotzen den lekua da, gero jeizteko eta larrua kentzeko. Beste batzuentzat Zeba izena "Zelai"-tik dator. Azken hitz honen alde Olaberriko erdigunean aurkitzen da "Zeba-zelai" izeneko lur sail bat. Gaur egun Zeba izeneko taberna bat ere badugu.

Baina zergatik aldatu zen izena? XV eta XVI mende bitartean gertatu omen zitekeen. Garai honetan jarri ziren lehen burdinolak Oria errekarren magaletan, Iurre auzo ondoan eta. 6 burdinola egon ziren bertan eta hauek herritarrei hainbat irabazi ekartzen zieten. Beraz, hainbat herritar burdinolekin aberastu zirenez, **Ola-berria** izena jarri zioten herriari, artzantzari loturiko **Zeba** alde batetara utziz.


Garai haietan ere jaiak ospatzen ziren, eta orain bezala ospakizun garran-



tzitsuena San Joan Bataiatzaile eguna zen. Bezperan hiru ekintza garrantzitsu zeuden: loreen bedeinkapena elizan, San Joan zuhaitzaren igoketa eta San Joan sua. Oraindik ere hirurak ospatzen dira eta aurtengo jaietan gazte talde batek San Joan su inguruan dantzatuko du.

Aurtengo jai hauetan ere beste bi berrikuntza badatoz, biak ostiralean: Arratsaldeko 7,30etan Herri Kirolak

egongo dira Saralegi anaien eskutik. Beste gauza batzuen artean Iparraldeko Herri Kirolen erakusketa bat emango dute eta bi emakume arituko dira aizkoran. Ondoren sagardo dastaketa bat egongo da. Ondo pasa!

 Nagore Goiburu



**Etxe - Zuri**  
Sagardotegia

Etxe-Zuri baserria  
Tel. 88 20 49 **OLABERRIA**

↑ Sagardo txotxetik urte guzian  
↑ Sagardo denboralditik kanpo ere irekita  
↑ Bataio, jaunartze, lagunarteko otordu, despedida, e. a.



JATETXEA  
Juan Rubio

- Menuak "Self-service" an: .....825 pzta.
- Enpresentzako menu bereziak: .....1875 pzta.
- Asteburuetako menuak (enkarguz): .....2500 pzta.
- Bankete, ezkontza, despedida eta ospakizunetarako eskatu aurrekontuak.

**200 lagunentzat tokia**

**Merkatal Zentrua ☎ 16 02 15 OLABERRIA**



**YURRE**

AUTO-ZERBITZU GELTOKIA  
24 ORDUKO ZERBITZUA

YURRE AUZOA ☎ 88 01 61 OLABERRIA

# Olaberriko San Joan Jaiak 94

## Ekainak 23, osteguna.

**18,00:** Jaien hasiera bu-  
ruhandi eta txistulariekin.  
**18,30:** Haurrentzako jokuak.  
**19,00:** Lore eta barazkien be-  
deinkapena. **20,00:** Zuhaitz  
igoketa. **21,00:** Parrilakada  
(izenemateak Curro tabernan  
eta Arrieta jatetxean). **22,00:**  
San Joan sua piztuko da. On-  
doren herriko gazteek dantzatu  
eta hainbat ekintza egingo di-  
tuzte. **23,00:** "Zirika" taldea-  
rekin dantzaldia.



## Ekainak 24, ostirala, San Joan Eguna.

**9,30:** Goiz-eresia Lazkaoko Txis-  
tulariekin. **10,30:** Mountain-Bikeko  
zeharkaldi herrikoia. **11,00:** Meza,  
Beasaingo "Zaharren Elkarteko" Ko-  
ruarekin. **12,15:** Hamaiketako Begi-  
ristain eta Igartzabal bertsolariekin.  
Ondoren Beasaingo aipatutako Abes-  
batzak beste saio bat eskeiniko du.  
**16,00:** Herriko Mus Txapelketa. **17,00:**  
Haurrentzako jokuak. **19,30:** Herri Ki-  
rolak Saralegi Anaiekin: aizkolariak,  
harrijasotzaileak, Iparraldeko herri ki-  
rol desberdinak eta, berezitasun bezala,  
bi emakume aizkoran. **20,30:** Sagar-  
do-dastaketa. Parte hartuko duten sa-  
gardozaleak: Olaberriko Etxe-Zuri,

Ikaztegiako Begiristain, Aduna, As-  
teasu, Astigarraga, Hernani, Donostia  
eta Zizurkilgo zenbait etxe. **23,00:**  
"Lisker" taldearekin dantzaldia goizal-  
derarte. **03,00:** Txokolatada eta jokuak.

## Ekainak 25, larunbata, Haurren Eguna.

**10,00:** Olaberriko IX Txirrindulari  
proba, Gipuzkoako Itzuliaren 3. etapa,  
Arkupe Kultur-Kirol Elkartearen es-  
kutik. **10,00etatik 13,00etara eta**  
**14,30etatik 18,30etara,** umeentzako  
parkea: puzgarriak, saski-salto, pelo-  
tadun igeritokia eta apar-jai.

**11,00etan eta 16,00etan,** Na-  
zio-mailako Plater-hausketa.  
**13,30,** Udalak eskeinitako  
haurrentzako bazkaria. **16,00:**  
Haurrentzako jokuak. **17,00:**  
Herri mailako Bola Txapel-  
keta. **18,30:** Umeentzako ber-  
bena "Auskalo" taldearekin.  
**20,30:** Herri Afaria (kartele-  
tako iragarkia ikusi). Mozorro  
Lehiaketa (Festen Batzordea-  
ren erabakiz, Herri Afarira  
mozorroturik datozenek afaria  
dohain izango dute). **23,30:**  
Suak, "Pirotecnia  
Zaragoza"ren eskutik.  
**24,00:** "Izadi" taldearekin  
dantzaldia goizalderarte.  
**03,00:** Bitsa (apar)-jai eta

jokuak.

## Ekainak 26, igandea.

**9,30:** Goiz-eresia. **10,00:** Nazio-  
mailako Bola Txapelketa. **11,00:** Me-  
za, Olaberriko Abesbatzarekin. **12,00:**  
Arkupe K.K.E.-ak antolatutako Pelota  
Txapelketako azken partidua. **14,00:**  
Paellada. **16,00:** Herriko Plater-haus-  
keta (izen-ematea 16,30etan itxiko da).  
**17,00:** Herriko Asto Lasterketa. **18,30:**  
Herri Kirolak: Antolatzaila, Olaberri-  
ko Herri Kirol Taldea. Arratsalde par-  
tea "Koskola" Txarangak alaituko du.

**SEAT ALAI**

San Esteban, 6 lurre, z/g  
☎ 654875-650162 ☎ 16 15 69  
TOLOSA OLABERRIA

## JOSE MARTINEZ ARROYO

**BULKANIZATUAK**

Marratuak, llanta eta neumatiko salmenta

☎ 88 05 66 (Tailerra)  
☎ 88 16 69 (Etxea)

lurrea Auzoa  
OLABERRIA

EDARITEGIA



Teléfono, 88 95 60 OLABERRIA

## JAUREGI TOLDOAK s/l

Tfonaok: 880243 - 880133  
BEASAIN



IÑAKI ERAUSKIN, SASIETA MANKOMUNITATEKO ZERBITZUBURUA

## “Berziklatzea zaborrari bizi berri bat ematea da”

**S**asieta Mankomunitateak aurkeztu berri du zabor bilketa bereiztuaren 4. zatia: plastikozko eta metalezko ontzien eta tetrabriken bilketa bereiztua. Ontziak tapa laranjadun edukinontzietan botatzeko ahalegintxoan egin beharko dugu beraz, ontzi horiek berziklatuz, guretzat zabor direnei beste erabilera bat emateko.



- Zertan datza Sasietaren azken zerbitzua?

- Ontzien bilketa bereiztua eta berziklatzea da zerbitzu berri hori. Ontzi konzeptu horretan sartzen dira plastikozko ontziak, metalezkoak eta tetrabrikak. Beirarekin hasi ginen, paperarekin jarraitu genuen. Baita pila, sendagai eta automozio olioekin ere. 4. atal berri honekin, zabor artean berziklatzeko gai diren ia materiale gehienak, eta egunero etxean sortzen direnak berziklatuko ditugu. Ontziek zaborraren zati handi bat osatzen dute: ia zabor guztiaren %10. Orain arte ez zaio behar adinako erantzunik eman.

- Errazetik zailera egin duzue?

- Bai, hala esango nuke nik. Zailena plastikoa berziklatzea da. Zenbait tokitan plastikoen bilketa bereiztu hau, esperientzia-pilotu bezala planteatzen da. Teknikoki ez dago erabat konponduta plastikoari eman beharreko irteera. Guk irtenbide hori lortu dugu, sektore osoa inplikatu dugulako. Orduan, momentuz, urte betez konponbidea hor daukagu Beasain, Ordizia, Lazkao eta Olaberrian.

### 70 tona zabor biltzen dira Goierrin egunero. Bataz beste, kilo bat biztanleko.

- Zergatik lau herri hauek?

- Alde batetik, zabortejiarekiko gertutasunagatik. Bestetik, lau herriak urbanoak, oso industrialak dira. Herriotan lortzen ditugun esperientziak, aplikagarriak izango dira beste herri handietan. Beste eskualdekiko abantaila daukagu: Goierrin kontzientziazio maila altua dago, erantzun maila ona eman dute paperarekin eta beirarekin. Orduan erantzun on hori errepikatuko dela espero dugu. Beira eta paper biltzetan, Euskal Autonomia Elkartearen aurretik goaz. Leku batzuetan bildu ere ez da egiten eta biltzen den lekuetan, hemen baino askozaz ere gutxiago. Herriarren eskura jarri diren baliabideak oso onak izan dira Goierrin. 400 biztanleko edukinontzi bat jarri dugu; eta Gasteizen adibidez, 1.000 biztanleko edukinontzi bat.

- Esperientzia-pilotu honen helburua zein da?

- Batetik, jakin nahi duguna da ea zein kantitate biltzen ari garen, eta kantitate hori nola sailkatzen den. Jendearen erantzuna zein den ezagutu nahi dugu. Zenbat tona biltzen diren. Ontziak berziklatzeak zein kostu ekonomiko daukan. Berziklaketa prozesu horren atal bakoitza optimizatu. Eta ingurugiro eta ekonomia arloan bilketa kanpaina honen egiten dituen mesedeak aztertu.

- Berziklaketak non egiten dituzue?

- Etxeetan bereiztu, guk bildu eta prentsatuta prozesaketa zentruetara bidaltzen ditugu. Ontziak Zamudiora, beira Laudiora eta papera Irurara. Berziklaketa zaborrari bizi berri bat ematea da. Forma ezberdinetan baina berriro erabilgarria egitea.

- Aurrera begira beste asmorik bai?

- Momentuz ez. Honekin esan daiteke, kontainerizazio prozesua amaitu dela. Egin behar duguna, sistema hauek finkatu eta erantzun ona duen neurrian falta zaigun izpitan murgiltzea da.

- Zenbat zabor biltzen da egunean?

- 70 tona zabor biltzen dira Goierrin egunero. Bataz beste, kilo bat biztanleko. 700 kilo beira bildu ziren iaz, eta 697 tona paper. Aurten zifra horiek gaitzetea espero dugu.

- Ontzien bilketa kanpainen enpresa eta erakunde ugari lagundu dute.

- Esperientzia-pilotu honen lortu du ontziekin zerikusia duen kate horretako zati guztiak inplikatzeko. Ontzi-egileak, ontzi-betetzailerak, banatzaileak, erabilitako ontzien biltzaileak eta berziklatzaileak. Guzti honekin batera, Eusko Jaurlaritzak eta guk ere parte hartu dugu. Jaurlaritzak eman du dirulaguntzarik gehien.

Loinaz Agirre

## 88 Poligonoaren Hirigintza: galdutako aukera historiko bat

Ezkiaga auzoaren, Porteria bezala ezagunagoa denaren erdigunean kokatutako 88 Poligonoaren hirigintza gabezia ez da atzo goizekoa. Zabaltze garaietara atzeratu beharko genuke, oinarritzko hirigintza ordenazio irizpide gabeko etxebizitzaren masiboen eta azpiegitura eta zerbitzuen defizit inportantea zen garaietara, urbanistikoki sekula egin behar ez denaren esponentea eta garai hartan bizitzaren kalitateari buruz orohar eta gai hauengan zegoen sentsibilitate ezaren islada litzateke honakoa. Udala izanik hiritarren gertueneko instituzioa, komunitatearen ongi-izate amankomuna gestionatu behar duena eta, era berean, komunitatearen aurrean funtzio ereduak edukitu behar duena, eskubide honen utzikeria zela eta bizilagunen presioen fruitu bezala urbanizazio plan bat aurkeztera behartu zitzaion Udalari.

Hirigintza plan hori aurreko gorpuzioak egin zuen eta aurrerapausu inportantea izan zen urbanizazio honen defizientzia larriak arintzeko. Proiektuak zonalde honetako erremate urbanistikoa aurrakusten zuen, irizpide orokorrek garai hauetara egokiturik zeuden eta Udalarentzat erreto garrantzitsua zen hori burutzea. Urbanistikoki, proiektuak garapen egokia bal-

din bazuen, eta badu ere, berdeguneei, zerbitzuei eta azpiegiturei dagokionez, puntu ezkor bat ere bada gure iritziz, eta horixe ari gara errepikatzen azken urteotan: eraiki beharreko etxebizitzaren zenbatekoa eta bolumenta.

Arriola J.ak presiditzen duen oraingo gorpuzioak proiektu hau bultzatu eta legealdi honetan horren gehiengoak betetzeko konpromezua hartu zuen eta, horren mostra bezala, Frontoien eta 3. bialeko urbanizazioa egiten hasten dira. Hortik aurrera geldialdia ematen da prozesu honetan. Eusko Gobernuarekiko Hitzarmenarako negoziazioak direla medio justifikatzen du geldialdia Udaltzat. Hitzarmena, joandako maiatzak 11an onartu zuten udalerriko taldeen gehiengoak. 115 etxebizitza sozial aurrakusten da komenioan eta proiektuaren gainontzekoren urbanizazioa, Ezkiaga Etorbidea izan ezik, akordio honetatik bereiztea erabaki baitzen elkarrekin ados ginela.

Elkarte honek, ikusirik proiektu honen burutzeak dakartzan zailtasun ekonomiko-finantzieroa, behin eta berriaz aipatu du instituzioen laguntza bilatu beharra, eta edozein gauzetan laguntzeko pronto jarri gara. Hitzarmen honek bi alde oso negatibo erakusten ditu, negoziazio txar baten frui-

tu direnak: alde batetik eraiki beharreko etxebizitza zenbatekoa gehiegizkoa eta, bestetik, Ezkiaga Etorbidekoa osotasunetik bereiztea. Etxebizitzaren zenbatekoari buruz, aurrez teknikoki asesoratu eta Elkarte honen partetik esan izan dugu (baita arauak alegatu ere) erremate urbanistikorako derrigorrez beharrezkoak diren etxebizitzak baino gehiago ez liratekeela eraiki behar; kontutan hartuz auzoaren dentsitate orokorren markoa, Ezkiaga Etorbidean kokatutako bi blokeen eraikitzea onartzen dugu, baina baita ukatu ere Mariaratz kalean kokatutako bi eraikinak, inolako justifikazio urbanistikorik gabeko bi "partxe" direla ulertzen baitugu. Bizilagunen gehiengoak atzera botatzen dituen bi blokeak altxatuko direla aurrakusten da Hitzarmenean eta hori ikusten da Eusko Gobernuaren sentsibilitate eza; horri gehitu Udalak erakutsitako ezintasuna eta horrela galdu da aukera historiko bat, oraingo gorpuzioa barrio honen defizitei irtenbiderik eman ziezaiokiena baina egin ez zuena bezala geldituko delarik gerorako.

Porteria Auzo Elkarte

### HIZKUNTZA

Ingelesa, alemana  
lkastaro intentsiboak

**Uztailean**

*Zai gaude!*

Maila eta adin guztiak  
40 ordu 17.000 pzt.  
20 ordu 10.000 pzt.

Kale Nagusia, 21  
Tf. 161727 BEASAIN



**ARGAZKI DENDA**

Argazkien errebelatua ordu betean  
Tf. eta Fax: 88 04 78  
Nafarroa Etorbidea, 1.

BEASAIN

IKAS EZAZU MEKANOGRAFIA



**meca  
rapid**

UDA GUZTIAN ZABALIK  
Urdaneta, 23-1. ☎ 887278 **ORDIZIA**

### GABIONA

Errodamentuak O. E.

F.A.G. eta G.P.Z.-ren banatzailea



Tel: 88 45 00  
Fax: 88 99 06

Goierri, z/g  
ORDIZIA

### San Pedro Jaiak 94

#### Ekainak 29. asteazkena, San Pedro eguna

**20:** Suziriak eta kanpai jotzea festei hasera emanez. **21:** Meza Santua herrian hildakoen alde. **21,30:** Txerriaren jaitsiera. **Aratsaldean eta gauean:** In-txausti Anaiak eta Unai Urkia trikitilariekin erromeria.

#### Uztailak 1, ostirala

**20:** Sagardo dastaketa eta txistor jatea. **23,30 etatik goizalderarte:** Dantzaldia Joselu Anaiak taldearekin. **Ondoren:** Kalejira Eguzkitze herriko trikitilariekin. **Bukaeran:** "Txokolatada" herriko enparantzan.

#### Uztailak 2, larunbata

**18:** Bola lehiaketaren hasera. *Oharra:* izen ematea arratsaldekoko 7etan itxiko da. **19:** Ardo banaketa herri enparantzan txistulari talde batek alaiturik. **20:** Meza Santua. **20,30:** Herri afaria, Peña eta



Arg.: Fotoetxe

Egaña bertsolariak bertan izango direlarik. **Gauerditik goizalderarte:**

Dantzaldia Drindots taldearekin. **Ondoren:** Txerri harrapaketa herriko enparantzan.

#### Uztailak 3, igandea

**9:** Segurako txistulariekin, goiz eresia. **11,30:** Meza Santua. **12,30:** Toka lehiaketaren hasiera, federatu gabekoentzat. **13:** Murua eta Lizaso bertsolariak. **Ondoren:** Laja eta Landakanda trikitilariak. **17:** Ume jolasak. **18:** Bola lehiaketa, izen ematea 7etan itxiko da. **18,30:** Trialsin erakustaldia. **Ondoren:** Bertsolarien bigarren saioa. **20:** Herri Kirolak, Segura eta Ezkio aurrez aurre. **Arratsaldez eta gauerarte:** Trikitilariaren saioak. **Festei amaiera emateko** txerriaren erretzea egingo da.

**Oharrak:** Afariko izen ematea herriko Ostatu jatetxean. Tfnoa.: 801166.

Tonbola izango da Apaiz-Etxean.

## OSTATU JATETXEA

*Festa onak pasa!*

Herriko Plaza  
MUTILOA

Tfnoa: 80 11 66

**LEIAR**  
KRISTALDEGIA



ERAKUSKETA: Ezkiaga Pasealekua z/g ☎ 888824  
BILTEGIA: Salvatore Industrialdea. ☎ 886070  
BEASAIN

**LOINATZ**  
Taberna  
Jatetxea

Bazkari, afari,  
ogitarteko, pintxoak



Nagusia, 27 ☎ 88 20 07 BEASAIN



Tfnoa.: 80 16 99


Liernia Auzoa

MUTILOA

## Saihesbidearen proiektua

Ormaiztegiko saihesbideko lanak datorren urtean hasiko omen dira. Batek baino gehiagok esango du: "Ba zen garaia!" Izan ere, egingo zela aspalditik agindua, baina urtetan ez atzera ez aurrera egon den horietakoa Ormaiztegiko saihesbidea: gure herria igarotzea trafikorako oztopo bihurtu den arte ez da Aldundiaren lehentasunen artean sartu. Lasaitu ederra hartuko du herri-kaskoak noizbaitekoan lanak amaitzen direnean!

Aldunditik bidalitako proiektua ez da behin-betiko proiektua, oraindik aldatetaren batzuk izan ditzake. Grafikoan ikus daiteke proiektuaren gutxi gorabeherako bat. Antzizar pare horretatik abiatuko da, trenbidez mendialdetik, eta Salbatoreko bidegurutze paretsu horretan haranaren beste aldera pasako da. Estanda erreka 225 m. inguruko zubi baten bidez igaroz. Grafikoan agertzen den modura, Ormaiztegirekiko lotura lehengo teila-fabrikaren parean izango litzateke.



Gero, eta beti ere proiektu honen arabera, "Hierros Mavi" k duela urte gutxi batzuk egin zuen pabiloiaren zati bat harrapatuko luke, eta aurreraxeago joanez Lapatza baserria ere bai, sakon horretan betelana egin behar delako. Aipatzekoa, baita ere, Mendizabalerako gaur egungo bidea eten egingo lukeela, eta dirudie-nez, ordezkoa Lapatza ondoan saihsbi-

dearen azpiko tunel batetik aurrera eramateko asmoa dago. Xehetasun gehiago nahi dituenak Udaletxean aurkituko du proiektua.

*Iñaki Amundarain*

## EZKIO-ITSASO

### Diputazioak Igartu-Beiti zaharberrituko du

Hain ezaguna zaigun Igartu-Beiti baserria Diputazioak erosi bazuen, bere aintzintasuna eta bere balio estetikoa kontutan harturik eskuratu zuen. Gainera, bere egitura eta barne banaketa ia bere hartan mantendu izanik gaur egunera arte, baldintza garrantzitsuzat jo zuten. Bestalde, museotarako nahi izanez gero, ezinbestekoa zen bere kokapenaren egokitasuna, hau da, herri eta errepede nagusietatik gertu. Baserriaz gain, Kultura eta Turismo Departamentuak inguru-inguruko lurak ere bereganatu zituen, ikusleriaren hurbilketa, aparkalekua eta eraikuntzaren gozamen estetikoa ziurtatzeko.

Igartu-Beiti XVI mendean eraiki zen eta XVII eta XVIII mendeetan aldaketa sakonak ezagutu zituen, XIX eta XX



mendeetakoek eragin eskasagoa izanez. Orain gutxi aurkeztu proiektuaren xedea baserriaren zaharberritzean datza, bere osotasuna segurtatuz eta XVIIko baserria XVII mendeko aldakuntzekin erakutsiz. Honetarako ondorengo eskusartzeak alde batera utzi-

ko dira eta galdutako berezkoak errekonstruatu. Helburua da, izan ere, eraikuntza horren barne giroa bere xehetasun guztiekin jendeari erakustea: egitura, materialeak, altzariak, tresnak, e.a.

Zaharberritze lan hauen aurrekontua, lurren mugimenduak, bota beharrekoak botatzeak, iheltseritza, zurgintza, elektrizitatea, pintura, BEZ eta gainerakoak barne 49.975.266 pezetakoa izango da.

Ikustaldiak zonaldeko patrimonio balioak, naturalak eta paisaia aldetikokoak ezagutarazteko moduan izango dira antolatuak, Kultur Etxeek, Udalek edo Zumalakarregi Museoak garatuak.

*Pilare Mujika*

## Kadete taldea Gipuzkoako txapeldun

Ekaina aurrera doan neurrian konturatzen gara denboraren gurpil geldiezin honek ohartzeko uda berarekin eramango duela. Berrero ere urria iritsiko dela eta ikastetxeak koneju kaiolak bezala beteko direla ikaslez. Hargatik, goiak behea jo aurretik, esnatu eta aurretik dugun uda zoragarri hau aprobe txatu behar dugu ahalik eta gehien.

Futboleko kadete taldeak badu arrazoi pisuzko bat udari hasera ona emateko, izan ere ekainaren 4ean Zumarragako Argixao zelaian 4-1 irabazi baitzuen Eskoriatzako Almen-en aurka. Orduezkero taldea kategoriz igo da eta datorren denboraldian 1. mailako kadeteetan jokatuko du, Jesus Urteaga delegatuak esan digunez. Beraz, Idiazabal Kirol Elkarteko kadete taldea Gipuzkoako txapeldun atera da beste multzoko 1.aren aurkako finala irabazi ondoren.

Anartz Prados jokalaria esan digunez, "Futboleko jokatzen denbora asko daramagu. 12 urtetatik hasi ginen entrenatzen eta partiduak jokatzen; orain 15-16 urte ditugu, baina aspalditik, ume-umetatik oso gogokoa izan dugu baloia denok. Astearte eta ostegunero en-



Jesus Serrano (presidentea), Jabi, Enrike, Ganboa, Joseba, Letamendia (atezaina), Josu Urteaga (entrenatzailea), Anartz, Asier, Ibai, Jesus Urteaga (ordezkaria), Borja, Ander, Markos, Patxi, Gaizka, Igor, Ruben, Txentxo, Eduardo, Oskar eta Imanol.

trenatzen dugu bertako futbol zelaian; normalean bi ordu luzez aritzen gara jo eta su, asteburuetan partiduak jokatu ohi ditugula". Talde bikaina denik ez dugu dudatan jarriko, baina Idiazabalgo taldea deitu arren, futbolari asko ez dira bertakoak. Batzuk Beasain, Ordizia eta inguruak baitira. Hemen

ere ekipo famatuetan bezala kanpotik etorriak dira zenbait jokalaria. Ezberdintasun bakarra, Idiazabalgora "musutruk" etortzen direla da.

*Aloña Galarraga*



**LANCIA**  
**ETXE - AZPI**

☎ 88 10 61 - 88 29 46  
ORMAIZTEGI



**KONTSULTORIO**  
**MEDIKU-KIRURGIKOA**

*Goierriarrentzako mediku zerbitzu espezializatuak*

Ordua eskatzeko Tfnoak: 885750 - 885854  
Nafarroa Etorbidea, 25 - 2. BEASAIN

**UNTXUNDEI**  
**Garajea**



**OSINALDE**  
**Karrozategia**

☎ 88 28 21 - 16 07 06  
ORMAIZTEGI

# Migel Mari Irastorza Alkatearekin



Lurralde Antolaketarako Legea dela eta Goerrin zenbait bilera egin direla jakinik, herriko Alkatearengana jo dugu gure kezka batzuei erantzun diezaien.

**-Lehenengo eta behin, zer dio lege horrek?**

- Izenak berak dioen eran, Elkarte Autonomoa lurraldeka eratu eta ordenatu nahi da lege honen bidez. Logikoa denez, lege horrek Goierri osoa ezezik gure herria ere hartzen du. Nolabait esateko, bailara eta herri bakoitzean zer bultzatu eta indartu behar den proposatzen du.

**- Baina, Euskal Gobernuak bakarrik al du hitza edo azken hitza?**

- Behar-beharrezkoa da Udaletxeek

parte hartzea. Lurralde Antolaketarako Legearen barnean badago beste lege bat: "Lurralde Antolaketarako Irizpideak" deritzana. Lege horren babesean saiatu behar dute eskualde eta herriek

**- Goierrik ba al dauka plan jakinik?**

- Goierri aintzindari izan da puntu honetan. Goierriko Udalek, Goierriko Herrien Ekintza deritzan fundazioa sortu zuten bere garaian eta fundazio honek bultzatua da "2005 Plan Estrategikoa"; ondorioz, planaren garapenerako agentzia sortu da.

**- Zaldibia nola geratuko da plan horren barruan?**

- Orain esaten ari garenaz aparte, herri bakoitzerako plan partziala dago. Hor saiatu behar dugu guk Zaldibiari komeni zaiona sartu eta onartarazten. Momentuz esan dezakeguna da, aha- legin guztiak egingo ditugula Zaldibia plan itsuroso eta egoki baten jabe izan dadin. Nolanahi ere, herritarrek behar den informazio guztia izango dute, euren iritzia emateko bideak irekiz. Hori bai, informazioa bere garaian eta bere puntuan serbituko da, gertakizunen hariari, protagonismo bila, aurrea hartu gabe.


## Udalaren kultur zerbitzuak

Kultur Batzordeak buruturik, Zaldibiko Udalak kultur arloan eskaintzen

dituen zerbitzuen funtzionamendua eta azpiegituren erabilpena arautzen duen txostena jaso dugu. Kultur Etxearen banaketa nola egina dagoen eta kultur ekintzetarako erabiltzen diren beste lokal edo leku batzuen berri ere ematen da; baita kultur arloko tresna edo ekipamenduaren inbentarioa ere, era guztietako baliabideen aipamenarekin batera: giza baliabideak, ekonomikoak, etab.

Bigarren solairuan, liburutegian, eta 6 urtetik gorakoentzat eskaintzen diren zerbitzuak hauek dira: katalogo kontsulta, liburu irakurketa, etxean irakurtzeko liburuak, aldizkariak, artxibo historikoa kontsultatzeko egokiera, bideoak, fotokopiagailua, herriko zahar- kinen fitxategia kontsultatzeko modua, etab.

Lehen solairuan, bestalde, lukodeta dago kokaturik, honako aktibitate hauek burutu daitezkeelarik: jolasak, ipuinak, jokoak, pintura, etab. Era berean, badago bideo-gela bat ere, behar den ekipamendu osoarekin. Horrekin batera, musika gela, ekipo estereofonikoaz hornitua. Bestalde, gimnasia gela ere lehen solairu horretan egon da orain arte.

 Rufino Iraola



## GOIAGI

## OGINDEGIA

*Ogintzan onenak!!*

- ◆ Egurrezko labean egindako ogi gozoa
- ◆ Opil finak
- ◆ Eguneroko ogia
- ◆ Ogi bereziak
- ◆ Ogi artisauak

**Etxezarreta z/g**  
**ORDIZIA ☎ 160501**

**Barandiaran Taldea, 2**  
**ZALDIBIA ☎ 880737**



## MUJKA

## LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19. Tel. 88 11 94  
ORDIZIA



## Inprimategia

## EGUZKI

Nafarroa Etorbidea, 9  
Tfnoa: 88 94 82  
20200 BEASAIN

## Arkiupe

Tapizteria

Tapizeak - Ohi estalkiak - Edredoak  
Mantak - Mairidireak - Mahai ohiak  
Toailak - Gortinak eta osagarriak

Manuel Zeberio  
J.M. Barandiaran Plaza  
☎ 88 00 84      ORDIZIA

# Beasaindarren %53k eman du bere botoa

Europako Hauteskundeak igaro berri dira. Beasaindarren artean ez du erantzun onegirik izan, 100 beasaindarretatik 53k besterik ez baitzuten bere botua, bere iritzia eman. Iazko Hauteskunde Orokorretan %33,66ko abstentzioa izan zen.

Alderdi politiko ia guztiak, IU ezik, jaitsi egin dira Beasainen. Iazko hauteskundeetan PSE-EEK atera zituen botorik gehien, %16,78. Oraingoan, EAJ izan da garaile, botoen %13,4arekin. Botoak eta portzentaiak honela gelditu dira: EAJk 1.321 boto (%13,4); HBk 1.145 boto (%11,61); PSE-EEK 907 boto (%9,198); EAk 781 boto (%7,92); PPK 402 boto (%4,077); eta IUK

## ALKARTASUNA LIZEOA

	1994	1993
EAJ	71	91
HB	86	107
PSE-EE	17	22
EA	53	85
PP	13	16
IU	2	4
BESTE	8	

## LOINAZPE

	1994	1993
EAJ	396	384
HB	355	413
PSE-EE	214	411
EA	258	416
PP	127	160
IU	108	82
BESTE	79	

## MURUMENDI


	1994	1993
EAJ	175	174
HB	208	234
PSE-EE	261	493
EA	80	152
PP	72	80
IU	108	100
BESTE	56	

## PLAZA

	1994	1993
EAJ	679	764
HB	496	568
PSE-EE	415	730
EA	390	630
PP	190	236
IU	166	129
BESTE	115	

384 boto (%3,894).

Lau gune --Plaza (erdigunea), Murumendi Ikastetxea (Porteria aldea), Loinazpe Ikastetxea (Antzizar aldea) eta Alkartasuna Lizeoa (Baserriak)-- eta hamasei mahai antolatu ziren. Auzoz-auzoko emaitzak koadroz-koadro hortxe dituzue. Laburbilduz, Plazan, erdigunean eta Antzizar aldean EAJ izan zen lehenengo indarra eta HB bigarrena; Porteria aldean, PSE-EEK jaso zituen boto gehien eta HBk jarraian; eta Alkartasuna Lizeoan, HB lehenengo eta EAJ bigarren.

 Loinaz Agirre

## ORDIZIA

**I**U dalak onartu berria du aurtengo aurrekontua. Berau mila miloitik gorakoa izango da. Aipagarria da kopuru honetatik 25 miloi rugby-zelai berria eraikitzeke erabiliko direla. Alkateak esan duenez, proiektua guztiz erabaki gabe badago ere, orain anexoa dagoen tokian belarrezko zelai bat egiteko asmoa dago eta era berean, egungo futbol-zelaia eraberrituko litzateke. Aurrekontuko gainontzeko diruak honela banaturik geratzen dira: Udaltxeak 846 miloi, San Jose Zaharren Egoitzak 129, Herri Antzokiak 26 eta 64 Majori polikiroldegiak. Gainontzekoa hirigintza lan e.a. etarako zuzendua dago.


**A**urtengo festetako aurrekontua ere onartua dago. Iaz bezelaxe 11 miloi ingurukoa izango da. Hauetatik 10 miloi Udalak berak ipiniko ditu eta gainontzekoa Festa-Batzordearen esku geratzen da, Jesus Mari Larizek adierazi berri duenez. Aurtengo nobedaden artean aipagarria da, Goizeresia herri-

ko lau muturretatik irtengo dela (San Juan, Altamira, Bustuntza eta Malkasko) herrigunean bukatzeko.

**D**antzari Txiki Eguna ospatzen da datorren igandean (26) Ordizian, Araba, Nafarroa eta Gipuzkoako zenbait dantza talde bertan izango direlarik, tartean Beasaingo Aurtzaka, Lazkaoko Oin Arin, Zaldibiko Iztueta eta Ordiziako Jakintza. Hona programa: 11,45etan, taldeen bilketa Txakurtxulon; 12,30: desfilea: Biala-semaforoa-Aldasoro taberna-Urdaneta-Torresol- Enparantza Nagusia-Olano-Arboleda-Barrena; talde bakoitzak 15 minutu izango ditu nahi dituen dantzak egiteko; 13,30: Barandiaran plazan talde guztiek batera Ikurrin Dantza, Fandangoa eta Arin-arina eskeiniko dute; 14: bazkaria Irriki Elkartean; 17: dantzaldia hasi eta Jakintzakoek "Desafio" eta Agurra eskeiniko diete etorritakoei Enparantzian. Ondoren dantzaldia eta bukatzeko trikitaliak.

**7**9.ean sortutako Santa Ana Korala euskal musika zabaldu nahian dabil azkenaldian. Inma Goiburuk zuzentzen duen Abesbatzak 45 kide ditu, 45 urteren inguruan dabilzanak eta, horrez gain, gazte-taldea ere badu. Uztailak 23an izango dugu aukera beraien kantuez gozatzeko.

**I**urtebete besterik ez du iraun Ordizia Futbol Taldeak Lurraldeko 1. mailan. Altamirako partiduan 0-0 egin arren, joanekoan 0-1 irabazi zuten Zestoan. Ondorioz, Preferenterako txartela lortu dute promozioa jokatuz. Bestalde, Jon Iturrioz urazpiko igerilaria garaile atera zen Bordeleko igeriketaproban. Honenbestez, trabesien denboraldiari modu onez eman dio amaiera, jarraian lortu duen 10. garaipena izan delako. Proba berean, bere anaia den Mikelek 3. postuan sailkatzea lortu zuen. Zorionak denoi!

 Aitor Calvillo

# Antzar Gazteak Txaranga 3. Frantzian

Frantziako Pompideau herrialdean dagoen Soubian herrixkan urtero txaranga eta banda arteko txapelketa bat ospatzen da eta Lazkaokoa den "Antzar Gazteak" Txaranga egon da oraintsu. Ardo eta mahastietan tradizio handia duen herri honetara lehen aldiz gonbidatua izan da Lazkaoko taldea, "Festival de vignes de bandas y penas" izeneko txapelketara. Ekainaren 4-5 etan ospatu den jaialdian proba ezberdinak pasa beharra izan dute taldearen musikalitatea, animazioa eta kalitatea neurtzeko.



arduradun den Balentinek esan digunez, data ez da egokinea, taldekideak oporetan bait daude. Ea ba animatzen diren eta beste albiste pozgarri bat ekartzen diguten neska-mutil hauek Frantziako paraje hoietatik.

## "Maizpide"-ren 2. alea kalean

89ko martxoan ikusi zuen argia 1. go aleak. 5 urte beranduago 2.ak. Aldizkariak dituen 23 orrietan gusto guztietako irakurgaiak aurki genitzake: Goierriko gorabeherak, kontzientzi eragozpena, euskaldun berriek beren buru oraindik erdaldunak esan nahi duena euskartzean usu egiten dituzten hankasartzeak, eutanasia, komikia, denborapa-

sak, lehiaketa... Kutxa-ren la-guntzaz kaleratu den ale hone-gatik zorionak eta ea, beste 5 urte itxaron gabe, aurkixea-goan heltzen zaigun 3.a!

## "Euskaraz bizi..."

Azken aldian loragintzan, pintaketan, aho-soinuan, sukaldaritzan eta dantzan trebatutakoak asko dira Lazkao aldean. Izan ere ez dira alperrik aritu hilabetez jo ta su norbera bere abildadeak neurtu eta kulturaz jazten. Partaideak, 150 lagun gut-tira, lazkaotarrak gehienak, baina baita Gabiria, Segura, Beasain, Ordizia eta Euskadi osokoak ere (Euskaltegiko ikasleak). Ikastaroak bukatu badira ere, festak jarraitu egiten du: ikasitakoa jendeurrean agertu eta, batez ere, ondo pasatzeko, ekainaren 24ean, San Joan eguna, Afari Saltseroa antolatu dugu Gerriko Txokoan: loragintza eta pinta-ketako esku joango dira Elkartearen apainketa-lanak; sukaldaritzako es-kutik afariko postrea eta aho-soinu "kontzertua" eta dantzatik nahiko auke-ra izango da...

*Aitzol Arruabarrena  
Mari Joxe Madariaga*

## **IPARRAGIRRE ANAIAK, C.B.**

### **KARROZATEGIA**

Hiribarren, 24  
Tfno. 88 95 83

20210 LAZKAO  
(Gipuzkoa)



Hirigoinen, 12  
LAZKAO

☎ 16 10 16

*Ana Belén*  
**ILEAPAINDEGIA**

Gurutze, 2  
☎ 88 26 31

LAZKAO

## **ALUMINIO ETA PVC AROZTEGIA**

*Eskatu aurrekontuak konpromezurik gabe*

IBABE INDUSTRIALDEA ☎ 888101 LAZKAO

**REHRA**



**AZKARATE**

POL. INDUSTRIAL IBABE  
TFNO.. 88 81 01 LAZKAO



ATAUN - AIA

## SANTA ISABEL JAIK

1994



Uztailak 1 - 2 - 3

Antolatzaile: ATAUN-AIAKO JAI BATZORDEA  
Babeslea: ATAUN-AIAKO UDALA

## Aiako festak

Datorren aste bukaeran izango dira aurtengo festak Aian. Ostiralean, uztailaren leian, Drindots musika taldea izango da bertan, sagardo dastaketaren ondoren. Larunbatean, Santa Isabel egunean, ohizko Auzo Bazkariak gain, Jator taldea gauerditik aurrera. Igan-dean, Kaxeta-Aia bizikleta igoera, IX. Dantzari Txikien Txapelketa, Arria eta Aierbe aizkoran, gauean Kistine, Bihotz eta Karlos trikitilariak...Baita ere ordea, beste hainbat gauza hiru egun hauetan zehar: Agautz, herriko trikitilarien jardunak, Zeberio eta Sorozabal

bertsolariak, toka txapelketa, ume jolasak...eta Aiak bere-berea duen giroaren "label"-a.

## Abstentzioa nagusi

Abstentzioa izan da notizia Ataunen ere, Europako Legebiltzarrerako hauteskundeen ondorenean. Zentsoko 1417 pertsonetatik, 530 abstenitu egin dira (% 37,4). San Martinen, esate baterako, % 40 izan dira botua emateko aukerari uko egin diotenak. Hamabost urte atzera joan beharko genuke antzeko partaidetza eskasaren bila, hain zuzen ere, 1979ko Espainiako Kongresurako hauteskundeetara. Orduan, % 44koa izan zen abstentzioa, bi urte lehenago toki bererako % 53 izan zelarik.

Gainontzean, Euskal Herrian gertatutakoaren ispilu izan gara Ataunen ere, oraingoan behintzat. Iazko emaitzen aldean, zerbait jetsi egin da HB: 460tik 436ra; botu kopuru bera jaso du EAJ-PNVk: 195; eta iaz EUEkin batera lortutako 371 botu haietatik oraingo 205ra jetsi da EA.

## Idazle saritua

Eusko Jaurlaritzako Euskara Zerbitzuak irakaskuntza ertainetako antolatzen duen "Urruzuno" literatur lehiaketan saritua izan da Naiara Etxeberria. "Badajoztik edonora" izenburuko prosa lan bat izan behar du lehiaketara aurkeztua. Guk hau idazterakoan, berarekin egoteko denborarik gabeko azken

momentuko berria dugu hau. Sakonduko dugu hurrengoan. Bitartean, bihoakio gure zorionik beroena Naiara Etxeberria gazteari.


## Beste saritu batzuk

Helburua, irakurmena lantzea eta testu idatziak ahoz adierazten ikastea duen "Abelino Barriola Saria", Joxemiel Barandiaran Eskolako 8. mailako ikasleek irabazi dute goi zikloko D eredu arloan. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak antolatzen duen lehiaketa honetan bertan, 5. eta 6. mailako ikasleek sarituak izan ziren iaz. Beraz, aurtengoarekin bigarrena dute segidan, oraingoek, saria.

Honez gero, zer esan? Gogoan duzue Sketch lehiaketa ere hauexek irabazi dutela duela gutxi? Ba hori, eutsi horri, ikasle eta irakasleok!

## Aitor Osa, bide onetik

Euskaldun Txapelketarako puntugarria den lehen eta bigarren mailako txirritulari afizionatuentzako XXX. Ataun San Martin Proba, Aitor Osak irabazi zuen ekainaren 12an. Agauntza Kirol Elkarteak antolatzen duen 130 kilometroko karrera honen irabazleak, gerora profesionaletan ikusi ahal izan ditugu (iaz Sagasti). Beraz, bide onetik dabil Aitor Osa.

 Joxe Begiristain

## BERRIZ ARANBURU

### ERROPADENDA

Nagusia, 8  
Tel: 88 04 53

BEASAIN



- ✓ Eguneroko menua, 750 pzta.
- ✓ Karta, batz beste, 2.000 pzta.

☎ 88 10 19 ATAUN S. Martin

## GOIERRIKO ZURAK, S.L

Inportazioko egur biltegia  
Ohol, aglomeratuak, e.a.

Iribarren, z/g  
☎ 88 80 23

LAZKAO



RENAULT

AGENTZIA

## LAZKAO GARAJEA

Senpere Industrialdea  
☎ 882442-888901  
Faxa: 888901  
LAZKAO



## ANZIZAR, S. A.

Autoelektrizitatea  
eta mekanika

Volkswagen  
taldea

Beasain-Zumarraga, 46 Kma.  
☎ 88 17 00 - 88 17 04 BEASAIN

## Bi lerrotan

**OP**auso Gaizto Mendi Elkartekoak Alpeak aldera doaz. "Orain arte, erreka, kobazulo, pirineotako mendi batzu, espeleologia, mendi bizikleta eta abar egin badugu, egun, hildo beretik jarraitzen dugu, baina maila zailxeagoan, irteera nagusiztat Mont Blanc, Monte Rosa eta Cervino jo genitzazke, Pirineoak alde batera utzi gabe beti ere." Esan digu Erramun Irastorza elkarteko zuzendariak.

**OM**ackinley mendia (6.236 metroekin Ipar Amerikako altuena) lortu du Marronek. Lurra espedizioko partaide bakarrak ekainaren 8an gaueko 9,30etan izugarriko hotzarekin (40-45 gradu zeropetik) lortu zuen bere hirugarren mendia. Aiako festak lasai pasa eta abuztuaren erdi aldera Kaukasoko Elbruzera abiatuko da ataundarra.

**OK**iol eskaladan Euskadi eta Espainiako txapeldun den Josune Bereziartua beasaindarrak hastear dagoen Munduko Kopan parte hartuko du. Uztailaren 10ean Italian hasi eta abenduan Bartzelonan bukatuko den Munduko Kopako probaren bat irabaztea du helburu Josunek, hori lortzeko frantziar eta amerikar eskalatzaileek erreztasunik emango ez badiote ere.



**OE**uskal Herriko triatloietan gogorrena den Zarauzkoan, Etor Mendia lazkaotarra izan zen lehen goierritarra 23. postuan, bigarren Aitor Eskalante 28.ean, hirugarren Imanol Etxeberria 33.ean eta laugarren L. M. Garijo 63.ean. Proba honetan Getariatik Zarauzera (2,5 Km.) igeri, Meagas eta Andrazarrate igo beharko zirkuitoan 80 Km. txirrituan eta azkenik Zarautzen bertan 20 Km. laisterka egin behar izan zituzten. Honez gain, Beasaingo Arrikutz Antzizar Triatloi Taldeko 3 lagun Nizako proba sonatuan

parte hartuko dute adinkako Espainiako selekzioan; Etor Mendia, Aitor Eskalante eta J. M. Rivasek, igerian 3,8 Km., txirrituan 130 Km. eta laisterka 30 Km. egin beharko dituzte proba honetan. Etorrek dionez txirritu proba izango da gogorrena, ibilbide zaila bait du. Abuztu aldean Holandan "Iron Man" batetan parte hartzeko asmoa ere ba omen dute.

**OB**eñat Garaialde beasaindar txirritularia Euskadiko txapelduna da lehen urteko kadeteetan. Agurainen eginiko lasterketan esprintean taldeari irabazita lortu zuen txapela S. C. Loizoz-Iberdrolakoak.

**OA**ntzizar Igeriketa Udal Eskolak hainbat garaipen lortu zituen Gipuzkoako eskolarteko txapelketan. Ainhoa Galarraga, Leire Contreras eta Oihana Epelde bakarka eta aurreko hiruarik eta Leire Guede erreleboetan Gipuzkoako txapeldun berriak dira. Lan bikaina ari dira egiten Iker Zurutuza eta Jaione Iurramendi gaztetxo hauekin.

**OO**rdiziako saskibaloilariak Federazio Txapelketa lortu zuten kadete mutilen mailan. Neskak berriz bigarren izan ziren eta infantil mutilak ere Euskadiko txapeldunorde.

## ORDIZIA

### AUTO-ESKOLA

Aita Urdaneta ☎ 88 72 76



- Mediku akupuntorea
- Pisuaren kontrola
- Estetiziena

Santa María, 8 - Tel. 881211 - ORDIZIA

## MARRON — ZAZPI HAUNDIAK

- ▲ Everest 8.848 m. — 1993-5-6
- ▲ Kilimanjaro 5.895 m. — 1994-5-3
- ▲ Makinley 6.236 m. — 1994-6-8
- ▲ Elbruk 5.633 m.
- ▲ Kartenz Piramideak 5.542 m.
- ▲ Vinson 4.897 m.
- ▲ Aconcagua 6.960 m.

Zorionak  
Marron



## GENERALI Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA  
Oriako Pasealekua, 20  
Tfona: 88 87 02  
BEASAIN

## Altzo Txiki zaldibitarra


Jesus Mari Jauregi zaldibitarrak anaia du Altzo ezizenekoa eta hortik datorkio Altzo Txiki deitura. Baserri eta basoko lan eta giroetan hezitua, linternero dabil orain. Bertsotan aritzera familia giroak behartu zuen, euskerak eta abertzaletasunak. Senide eta lagunartea bertso girokoa izaki, ikasi, ez du ikasketa berezirik bertso kontuan, hasi egin zen 12 bat urterekin. Bere burua definitzen hasita, ez dela bertsolari ona dio, ideia politikak otu ohi zaizkion arren. Denborarik ere ez zaio ia gelditzen eta horri erru dextenta botatzen dio. Altzo Txiki ez du plaza gehiegirik egiten, oso gutxi eta bere belaunaldikoekin abestea arras zaila suertatzen zaio. Zaldibian astero egiten dituzten bile-retaz hitzegiten digu. Asteazkenetan gazteak biltzen dira: Sarriegi, Eguren, Narbarte... eta ostegunetan heldue-gaok: Iraola, Begiristain, Zeberio... eta nola ez, bera.

Plazako lehen saioretako bat Gabirian egin zuen, 14 urterekin. Bere ustez, zalantzarik gabe, bertsoak balio du parrandarako: "lehen asko kantatzen genuen tabernetan, pub-en sorrerarekin gutxiago, bertako zaratarekin ezinezkoa bait da". Hala, behin 16 orduz bertsotan aritu zirenekoa oroitzen du.



Ez omen zuten geldiuene handirik egin! Belaunaldi parranderoa berea nonbait. Bapateko eta idatzizko bertsoak biak ditu atsegin. Hori bai, oso gaizki iruditzen zaio bapateko itxuran idatziak botatzea. Bapatekoan gehiago aritzen da zaldibitarra ("gozada bat da"), errima eta neurria sakratuak direla aitortzen du, eta nola ez, hizkuntzaren erabilera zuzena. Ez du publiko handirik eskatzen, aski du bertsoa preziatzen duena aurrean badu. Bertsolaritza egun hain modan egote horrek ez du kezkatzen: "Bertsoa kultura da eta jendeari atsegin izatea normala deritzot, polita. Dena den, ez du jainkotasunik behar".

Bertsoak entzun ala kantatu, biak ditu maite; umorezko gaia ala sakona, hori inguruaren baitan dago edo gertakizunaren arabera, "baina negarrra eragitea errazagoa da irria sortaraztea baino", dio, eta librean sarriago abestu behar litzatekeela. Bertsolariari herrikoa eta abertzalea izatea eskatzen dio, non dagoen eta zer kantatu behar duen jakin dezala. Bertsopaperei buruz dioenez, astiz egin behar dira, bapatean baino gehiago esan behar da idatzian eta "buruko-min" batzu pasa ere bai. Oraingo publikoak nahiko ondo ulertzen du bertsoa, "lehen baino gehiago behintzat, bai. Hala ere lehen plazara agertzen zen guztia genuen bertsozalea. Oraingoetatik erdiak, ordea, ez du bertsozaletasunik", Altzo Txikiren ustez. Bertsozaletasun handia ikusten du Zaldibian, Goierriin, eta baita ulertzen duen jendea ere. Pentsatzen du aterako direla bertsolariak, bai baitaude ondo dabilzanak eta. Zaldibiko bertsolariaren amets handiena bertako bertso eskolako gazteak bertsolari handi bihurtzea da, baina txapela irabazteagatik inola ere ez.

 Alaitz Sarasola

## Aurreko zenbakiko gurutzegramen soluzioak

1	L	I	N	T	O	N	T	A	U	N	G	A	B	O	N	E	G	U	N	1	I	S	O	L	A	M	E	N	D	U	R	A	H	A	T	O	A	U	
2	A	R	A	V	B	A	U	X	I	T	A	O	R	A	I	N	U			2	K	A	L	A	B	A	Z	A	R	R	A	B	E	I	T	I	A		
3	A	L	T	Z	A	I	N	K	U	R	T	S	O	Z	R	E			3	A	L	A	B	A	T	H	A	R	R	A	Z	O	Z	E	F	D	E		
4	K	K	E	I	L	A	N	R	A	T	K	I	N	S	O	N			4	R	A	M	N	O	I	Z	T	I	M	I	N	B	I	Z	I				
5	A	U	R	R	E	K	O	T	A	S	U	N	O	O	I	E	S			5	A	T	I	X	T	T	A	S	U	N	A	U	E	F	A	H			
6	O	R	I	A	N	G	U	R	U	T	Z	E	G	R	A	M			6	K	U	R	B	A	T	U	O	E	L	R	L	O	I	N	A				
7	R	T	T	A	K	T	A	L	E	T	E	S	K	A			7	O	A	O	I	R	A	L	O	K	A	T	U	T	A	N	U	N					
8	B	I	A	Z	T	O	E	E	G	I	A	R	E	K	I	N			8	R	X	E	L	E	B	R	E	K	E	R	I	O	T	U	T	K			
9	A	Z	E	R	I	A	K	T	X	O	S	O	H	A	T	U			9	I	T	S	A	S	O	M	E	T	U	Z	T	N	E	G	N	A			
10	A	R	A	M	A	T	I	K	A	R	K	U	P	E	T			10	I	Z	E	T	M	I	K	O	A	N	I	O	I	U	R	U	B				
11	T	O	K	A	I	N	K	A	T	A	R	N	L	A	O	A			11	E	S	K	U	A	K	I	N	B	A	K	A	K	A	T	I				
12	O	G	I	G	E	L	T	O	K	I	I	A	A	A	R	R			12	A	R	D	I	T	O	D	I	A	N	U	A	L	E	B	K				
13	L	I	D	I	A	A	I	P	I	T	N	R	K	A			13	I	D	T	S	E	T	S	E	A	T	O	H	A	L	I	P	O					
14	O	T	E	N	T	X	O	U	Z	B	O	A	A	B			14	S	I	D	A	G	E	A	K	O	A	I	A	J	I								
15	E	E	A	E	V	A	L	L	A	V	E	A	B	I	L	A			15	E	T	A	Z	I	O	N	I	O	L	D	A	R	K	O	I				
16	I	G	A	N	D	E	G	O	I	A	L	D	E	K	A	K	A			16	T	A	N	G	O	P	A	L	A	Z	I	O	A	I	H	O	R	T	
17	Z	I	Z	T	U	V	I	Z	X	A	R	T	E			17	A	N	T	A	R	T	I	D	A	N	G	K	O	N	O	R	T	E					
18	E	A	Z	A	B	A	N	T	A	I	L	A	A	R	T	E			18	S	Z	I	R	L	O	K	U	Z	I	O	H	K	D	Z	S				
19	B	I	L	U	Z	I	K	R	O	P	O	P	U	L	A	Z	I	O			19	U	N	A	N	V	E	R	E	T	E	G	I	E	D	A	E	I	O
20	A	D	A	N	A	L	B	E	R	T	O	O	R	E	K	A	T	U			20	N	A	K	A	A	P	E	T	I	T	O	S	O	A	S	E	G	

### TELEFONO BERDEA DOHAINEKO INFORMAZIOA

Medikuntza alternatiboa, turismo berdea, nekazaritza ekologikoa, energi alternatiboa, produktu ekologikoak (paper birziklatua, toner-ak, kosmetika, haltzairuak, margoak, barnizak, etab) edo ingurugiroarekin erlacionaturik dauden enpresa, ekoizle, banatzaile eta profesionalekin harremanetan jarri nahi baduzu...

**Dei ezazu, 33 05 00 Tfnora**



ZURE ERRENTA  
AITORPENEAN  
DESGRABAGARRIA

VARILUXIK EZ BADUZU, EZ DAKIZU ZER GALTZEN DUZUN.

Varilux Comfort lente berria, MULTIOPTICASEk bermatutako egokitzapenarekin.  
Dagoen lenterik perfektuena distantzia luze, ertain eta laburrena ikusmen naturala izateko.

Multi $\beta$ <sup>®</sup>  
TRATAMENDU ESCLUSIBOAREKIN  
MULTIOPTICASEN BAKARRIK.

## VARILUX COMFORT LENTE BERRIA. IKUSMENIK ATSEGINENA



Lehenago edo geroago...


Naturala, duen ikuspen-eremu zabalagatik, hurbiletik urrunerako aldaketa leunagatik eta buruari eta begiei mugitzeko ematen dien askatasunagatik. Eta gainera, diseinu eksklusibo, moderno eta edergarria.  
Lehenago edo geroago Varilux aukeratuko duzu. Ikusiko duzu zein atsegina den.



BERGARA • ARRASATE • ORDIZIA



...VARILUX aukeratuko duzu




- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxegintzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, iturri eta gehigarriak
- Hidromasaia bainerak eta saunak
- Subaju eta ikatz eta egurrezko sukaldeak



Barandiaran  
ZERAMIKAK

Senpere, 7 ☎ 88 79 72  
BEASAIN



*i*txura baino  
gehiago...

ANTZA

FOTOKONPOSAKETA

IMPRESIONERIA

Industrialdea 1-2 • ☎ (943) 37 15 45 - Faxa: (943) 36 10 48 • 20160 LASARTE-ORLA